



Maite **B**ETELU



2012 zoriontsu eta alaia opa dizuegu !



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria**
zerbitzuak
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen**
administrazioa

Aralar plaza 4 behea • Lasarte-Oria
Tel.: 943 364886 • Faxe: 943 372117

JOSE AIZPURUA UNANUE S.L. eraikuntzak



2012 zoriontsua opa dizuegu !
urteberri on !



- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak

Nagusia 14 behea atzekoaldea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373879 • Mobila: 620 800186

Urtarrila



Martxo



Maiatza



Uztaila



Iraila



Azaroa



Otsaila



Apirila



Ekaina



Abuztua



Urria



Abendua





Erlezain-eztigileen kezka liztor erraldoiak hurbildu direla eta

15 Lasarte-Oriako eztigileak, Gipuzkoako beste batzuen antzera kezkatuak ziren erleak jaten dituzten liztor erraldoiak hurbildu zirelako. Vespa Velutina Asiako liztor erraldoien kabi bat aurkitu zuten Lasarte-Orian; Adurizko tuneletik gertu jaso zuten habia handia zen oso, 1,65 metroko diametroa zuen eta hutsik bazegoen ere 1.500-4.000 liztor inguruk erabili zutela uste dute. Lasarte-Oriako erlezaleak erne ziren inguruan Asiako liztorrak zebiltzala konturatu zirenetik. 2010eko udan ikusi zituzten lehenengoak. Julian Urkiola Gipuzkoako Erlezainen Elkarteak presidenteak azaldu zigunez, udan konturatu ziren liztorrak zebiltzala.



07 Irakurketa hunkigarria: Presoek egindako olerkiak eta eskutitzak irakurri ziren Xirimiri elkarteak, "Harresi guztien gainetik, sarraila guztien azpitik" ekitaldi intimistan. Senideek, bertsolariek eta herritarrek presoek bidalitako olerki, eskutitz eta bertsoak irakurri zituzten.

Eta hauen hitzak ulertu eta barnerratzeko herriko musikari, abeslari edo dantzarien laguntza eta irudi, hots eta argi jokoak erabili ziren.

Baina kartzelatik idatzitako presoaren hitzak ez ezik, margoak ere iritsi ziren. Izan ere, Xirimiri elkarteak Aginako Patxi Segurola, "Ximio", presoaren lanen erakusketa txikia egon zen ikusgai.

10 Zero Settek 24 urte bete ditu: 24 urte bete ditu Zero Sette akordeoi orkestrak eratu zenetik. Orduetik, arrakasta ukaezina lortu du, orkestra sendoa da Euskal Herrian eta Euskal Herriak kanpo aintzat hartua dena eta urte hauetan hainbat lurraldetan kontzertuak eskaini dituen.

10 Aitzol Etxegoien "Gipuzkoako Bazterrak" DVren argazki lehiaketan bigarren: Urte berriko egutegian jarriko diren argazkiak aukeratzeko argazkilaritza lehiaketa antolatzen du El Diario Vasco egunkariak eta 2011ko egutegia osatzeko antolatutako hirugarren edizioan, Aitzol Etxegoien herritarrek bigarren saria eskuratu zuen.

Argazki sarituekin, egunkariak argitaratu eta banatutako 2011. urteko egutegian, hain juxtu, apirilari dagokion orrialdean jarri zuten Etxegoien herritarrek egindako argazkia. Lasarte-Oriako argazkilaria iritzi, "Argazki batek zure bizitzaren une konkretu bat gordezten du".



11 Baserrietara iritsiko dira Udaleko Gizarte Zerbitzuak: Lasarte-Oriako Udalak, Donostialdea-Bidasoa eskualdeko base-rriguneak garatzeaz arduratzen den Behemendi elkartearekin sinatu zuen lankidetzarako hitzarmena. Hitzarmenean Behemendiko Juan Cruz Alberdi gerentea eta Ainhoa Amundarain teknikaria, Jesus Maria Zaballos Lasarte-Oria-

ko alkatea, Martin Moreno eta Lourdes Acebedo Gizarte Zerbitzuetako zinegotziek hartu zuten parte.

Hitzarmen eta diru laguntza honen bitartez Behemendi elkarteak Mendeko-tasunaren Legearen berri emateko kanpaina jarri zuen martxan Lasarte-Oriako baserri gunetako biztanleriaren artean.

Helburua, herriko baserri inguruetan bizi diren 60 urtetik gorako pertsonen behar sozialak antzeman eta euren egoera aztertu alde ezberdinetatik: etxebizitzaren kokapen geografikoa, bideen egoera, argiztapena edo familiaren egoera.

12 Iñaki Galdos Buruntzaldeko kirol arduradunekin bildu zen: Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekin-tzako Departamentuaren diputatua den Iñaki Galdos, Buruntzaldeko kirol arduradunekin bildu zen, Lasarte-Orian. Gipuzkoako Foru Aldundiak azken hiru urteetan landutako Kudeaketa Planaren berri eman zuen kirol diputatuak.

Foru Aldundiaren Gipuzkoa Eraikitzen ekimenaren barru kokatutako bilera herriarren partehartzea zuen helburuetako bat.

14 PSE-EEK Jesus Zaballos aurkeztu zuen alkategai: Gipuzkoako PSE-EEK, maiatzaren 22ko hauteskundeetarako Lasarte-Oriako alkatetzarako hautagaia aurkeztu zuen, Jesus Zaballos gaztea. Goiegi jate-xean egin zen ekitaldian, herriko alderdi sozialistako zinegotzi eta zaleez gain, besteak beste, Iñaki Arriola Gipuzkoako

PSE-EEK idazkaria, Jesus Egiguren eta Ernesto Gasco ere egon ziren. Zaballos-ek azpimarratu nahi izan zuen, alkate kargua hartu zuenean lasarteoriatar guztien alkatea izan nahi zuela, eta horretan jarraituko duela.

14 Urrezko atletak Lasarte-Orian: LOKEko atletismo taldeko Irati Larrañaga, Gaizka Ormazabal, Eneritz Imaz, Ane de Miguel eta Ane Galardik urrezko lau domina eta zilarrezko bat jaso zituzten Junior, Jubenil eta Kadete mailako Gipuzkoako txapelketa jokatu zen Ano-etako belodromoan. Bertan, LOKEko bost atleta gaztek hainbat probatan parte hartu eta emaitza paregabeak lortu zituzten: lau Gipuzkoako txapeldun eta txapeldun orde bat ditugu herrian.

14 Emakumeen artean kirola sustatzeko hitzarmenak sinatu ziren: Kirol federatuen emakumearen parte-hartzea bultzatu asmoz, lankidetzako hitzarmena sinatu zuten Lasarte-Oriako Udalak Lasarte-Oria Kirol Elkarteak, Ostadar Kirol Fundazioak eta Buruntzaldea Igeriketa eta Kirol Taldeak.

Emakumeek kirol federatuen parte-hartze eskasa dutela ikusirik, Lasarte-Oriako Udalak laguntza-lerro bat garatzea erabaki zuen kirol federatutako jarduerak egiterakoan emakumeak positiboki diskriminatu daitezkeen.

Sinatzeko ekitaldian Jesus Zaballos, Lasarte-Oriako alkatea; Fernando Eskoriaza, Udaleko Kirolen Batzordeko lehendakaria; Jesus Diez, Lasarte-Oria-

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak, S.L.

Palazio etxea, Laurgain auzoa • AIA
Tel.: 943 132893 / 830808
Mobila: 656 782999



2012 zoriontsua opa dizuegu!



Loidi Barrengo frontoia eta ingurua prest

31 **Padel pista eta rokodromoa zabalik.** Loidi Barrengo frontoiaren eta Udal Kiroldegia-aren ondoan eraikitako padel pista eta rokodromoa erabilgarri daudela jakinarazi zuen Udalak eta erabilera zehazten duten arauak ere jakitera eman zituen. Urtarrilaren 25ean PSOEn Gobernuak EAEn zuen ordezkari Mikel Cabieces-i erakutsi zizkion padel pista eta rokodromoa Jesus Zaballos alkateak. Bestalde, Lasarte-Orian lehen komun publikoa ireki zen Loidi-Barreneko frontoiaren ondoan. Bakarrik garbitu eta minusbaliotasunen bat duten pertsonentzako egokitua dagoen bainugela da. Elbarriek salatu dutenez, padel pista ezin dute erabili atetik ez direlako pasatzen.



Kirol Elkarteko lehendakaria eta Kontxi Sarriegi, Ostadar K.F.ren ordezkaria egon ziren. Puy Solano, Buruntzaldea Igeriketa eta Kirol Taldearen ordezkaria ezin izan zen bertan egon.

19 **Euskara sustatzeko hitzarmenak:** Udalak Ttakun kultur elkarteak eta herriko ikastetxeek euskararen erabilera sustatzeko diru laguntzen hitzarmenak sinatu zituzten. Jesus Zaballos Lasarte-Oriako alkatea, Euskara Batzordeko lehendakari den Iñaki Mugika, Mari Jose Eizmendi Ttakun kultur elkarteko lehendakaria, ikastetxeetako zuzendariak, Sasoeta-Zumaburu ikastetxetik Marga Iturriza, Landaberri ikastola-ren izenean Josu Garmendia, Mari Jose Murua Landaberri DBHtik eta Ester Urrutia Lasarte-Usurbil institutuaren izenean, eta Xabier Ejea Udaleko idazkaria izan ziren hitzarmen sinaketa ekitaldian.

19 Danborraden barrunba entzun zen

Lasarte-Orian: Lasarte-Oriako ikastetxeek aurre hartu zioten festari eta San Sebastian bezperan, danborhotsak entzun ziren gure herrian.

Herriko ikastetxeetako haurrek egunak eman zituzten Donostia eguneko danborrada prestatzen. Ikasgelan egindako sukaldari edo soldadu jantzia eta egin zituzten entseguen emaitzak gurasoei erakusteko eguna izan zen.



30 Giro bikaina Nazioarteko LVI. Krosean:

Giro bikaina izan zen Hipodromoan Donostiako LVI. Nazioarteko Krosean. Eguraldiak lagundu egin zuen, ez zuen goiz guztian euririk egin, eta bezperako zaparraden ondorioz lokatza pixka bat baldin bazegoen ere, korrika egiteko giro ezin hobea zen.

Kiprono Menjo eta Nuria Fernandez izan ziren aurtengo nazioarteko krosek proba nagusien irabazleak, baina ehunka korrikalarik hartu zuten parte maila ezberdinetako lasterketetan. Lasarte-Oriako korrikalariak gustura ziren 56. Nazioarteko Krosean egindako lanarekin, Gonzalo Sukunza 29. izan zen senior mailan, Pili Bodegas 14. emakumeen senior mailan eta infantil mailan 15. izan zen Itoitz Rodriguez.

23 Zubizarreta eta Garrido, Euskadiko borroka eta sanbo txapelkun:

Gasteizko Abetxuko polikiroldegian jokatu zen Euskadiko sanbo eta borroka txapelketan Leire Zubizarreta eta Mario Garrido lehenengoak izan ziren beraien kategorian.

Josu Olmosek bere pisuko bigarren postua eskuratu zuen eta Espainiako kanporaketarako sailkatu. Gero hilaren 30ean urrezko domina eskuratu zuten Olmosek eta Kiara Tobajas-ek Junior mailako Gipuzkoako txapelketan.

Leire Zubizarreta, 2010eko txapel-duna bigarren izan zen, Esteban Martinez eta Asier Sagasti bezala. Mario Garrido hirugarren izan zen.

27 U-27ko grebak jarraipen handia izan du herrian:

ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE, Hiru eta CNTk deitutako pentsioen eraldaketaren aurkako grebak jarraipen handia izan zuen gure herrian.

Dendak, bankuak, harategiak, ikastolak, tabernak... itxi egin zituzten.



29 Carrasco eta Gonzalezek irabazi zuten eremuko ehiza txapelketa:

Azkozteko ermita ondoko Benedika eta Buruntza belardietan burutu zen Bigarren Eremuko senior, beterano eta jubenil mailako Lasarte-Oriako XXXI. Ehiza txapelketa txakurra- ren laguntzarekin.

Herriko Buruntz-Azpi elkarteko ehiztariak lan ona egin zuten beterano eta jubenil mailako txapelak eskuratu zituzten Antonio Carrasco eta Ioritz Gonzalezek, hurrenez hurren, eta Gipuzkoako txapelketarako txartela lortu zuten, Jesus Ferreirarekin batera.



30 David Martin garaile izan zen Idiazabal:

Herriko atletak Idiazabalako XXXI. Herri Krosean parte hartu zuten eta horietako batek, David Martinek lortu zuen garaipena. Helmugan, Davidek 21 segundoko errenta atera zizkion Joanjo Igartzabal zumarragarrari.



Incomán

2012 zoriontsua opa dizuegu!

 **Elektrizitatea aurrezteko ikerlanak.**
 **MIC transpalak.**
 **MIC metagarriak.**

Antxota kalea 2 • Tel.: 943 373198 / 943 373153 • Faxe: 943 365935 • LASARTE-ORIA






Aspanogi elkarteak Porrotx eta pailazo talde osoa omendu zuen

14 Porrotxek, pailazo talde osoarekin batera Aspanogi elkartearen omenaldia jaso zuen, Haur Minbizidunen Nazioarteko egunaren bezperan. Aspanogi, minbizia duten haurren gurasoen elkarteak, Txara I eraikinean antolatutako ekitaldi hunkigarrian oroigarri bana eta eskerrak eman zizkieten Porrotx eta pailazo taldeari, gaixotasunaren errealitatea gizarteratzeko egindako lan guztiagatik.

Gainera, ekitaldi honetan gaixorik dauden nerabeei, behar duten ospitaleko zaintza zein arreta psikologikoa eman ahal izateko, Nerabeentzako Minbizi Unitate berezia eskatu zuten elkarteak kideek.

01 **Alkoholiko Anonimoen 3. Urteurrena:** Lasarte-Oriako Alkoholiko Anonimoen elkarteak herrian sortu zenetik hirugarren urteurrena ospatu zuen Villa Mirentxun. Ekitaldian "Las Doce Trampas" arazoa modu berezian jorratzen duen lana aurkeztu zuten eta Alvaro Iruin Gipuzkoako Osasun Mentaleko zuzendariak eta familiako Beltran medikuak "alkoholismoa familia esparruan" hitzaldian beraien bizipenak eman zituzten aditzera. Jarraian Al-Anón familia taldeko kide batek hartu zuen hitza eta ondoren, Lasarte-Oriako taldeko beste kide batek.



05 **Bodegas, Latorre eta Sevilano Gipuzkoako txapelketan berri:** Pista estaliko Gipuzkoako atletismo txapelketetan bi urrezko domina, zilarrezko bat eta junior mailako estatuko txapelketan parte hartzeko bi marka gutxieneko lortu zituzten. Larunbatean Sean Jose Ramon Latorrek lortu zuen lehenengo txapela 60 metroko proban. Igandean berriz, 60 metro hesi lasterketan, eskuratu zuen urrezkoa Iñigo Sevillanok.

Oskar Goikoetxeak zuzendutako LOKEko gazteak ere fin ibili ziren. Irati Larrañagak zilarrezkoa eta Españako txapelketako txartela lortu zuen jauzi hirukoitzean.

Bestalde, Hernaniko Landare errugbi zelaian Gipuzkoako Kros Laburreko txapelketan, emakume mailan, Pili Bodegasek eskuratu zuen garaipena.

07 **Janari banaketa puntua ireki zen:** Egoera ekonomiko zaila bizi duten herritarrek badute beste euskarri bat. Lasarte-Oriako Udalak eta Berpiztu elkarteak hitzarmena sinatu zuten herrian elikagai banaketa puntu bat egon dadin. Laguntza hau jaso ahal izateko herritarrek Gizarte Zerbitzuetan, Villa Mirentxun, eskatu beharko dute informazioa.



05 **Giro ederra inauterietan:** Iruñako jai giroa bizi ahal izan zen Inauterietan Lasarte-Oriako kaleetan. San Ferminak zen moztorro-gaia eta festa honetan izaten diren hainbat protagonisten moztorroak ikusi ziren, zezen, korrikalari, turista... Igandean berriz, Euskal Inauteriak egin ziren herrian, goiz eta arratsaldean.



12 **Erraustegiaren finantzaketari erantzuna:** Zubietan erraustegia eraikitzeko 378 milioi euro, Europako Inbertsio Bankuak (195), Foru Aldundiak (115) eta Banesto eta La Caixa bankuek (68) jarriko dituztela jakin ondoren, Erraustegiaren Aurkako Plataformen koordinakundeak deituta Lasarte-Oriako La Caixaren bulegoan protesta egin zuten. Gipuzkoa Zero Zabor (GZZ) koordinakundeak, diru publikoa axolagabekeriaren erabiliko dela salatu eta erabakiarekin bere desadostasuna adierazi zuen.



12 **Uzta ona Neguko txapelketan:** Buruntzaldea igeriketa taldeko gazteek Gipuzkoako Infantil, Junior eta Absolutuen Neguko Txapelketan sei domina eskuratu eta hogeita marka pertsonal hobetu zituzten Tolosan. Itsaso Tolosak zilarrezko domina eta bi brontze lortu zituen, Iñigo Ibarburuk bi brontze eta Mikel Arribillagak zilarrezkoa.

12 **Santos Uribe eta LOKEko Irati Larrañagak Euskadiko txapeldun:** Hilaren 12 eta 13an Euskadiko beterano eta senior mailako txapelketan Irati Larrañaga gazteak urrezko domina eskuratu zuen jauzi hirukoitzeko proban, Iñigo Sevillano 60 metro hesi proban txapeldun ordea izan zen eta Gaizka Ormazabalak hirugarren 400 metrotako proban. Bestalde, Gasteizen Santos Uribe atleta lasarteoriatarrek 75 urte baino gehiagoko 5 kmko martxa proban, xirimiriari eta hotzari aurre eginez, urrezko domina ekarri zuen herrira.



Erribera kalea 10, atzealdea • Tel.: 943 362997 • LASARTE-ORIA

2012 ALAITSUA OPA DIZUEGU !



LASARTEARRA
KIROL ETA KULTUR
ELKARTEA



Lasarte-Oria sortu zeneko 25. urteurrena ospatu zen

14 Otsailaren 14tik 20ra bitartean astebetez luzatu ziren Lasarte-Oriako 25. urteurreneko ospakizunak. 14an Jesus Zaballos alkateak altxa zuen bandera herriko ereserkiaren doina entzuten zelarik eta ondoren, pleno aretoan, EPAko Lan eta Lan taldeko kideek, Landaberri BHI eta Institutuko gazteek, Emakumeen Zentro Zibikoko kideek eta Literatur tailerrekoek eurek idatzitako lan eta olerkiak irakurri zituzten. Arratsaldean berriz, "Oria" izeneko erakusketa inauguratu zen eta Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak emanaldia eskaini zuen.

Ekitaldi ofizialen eguna otsailaren 15a izan zen, hain juxtu 25. urteurrenaren eguna. Goizean meza ospatu zen Brigidatarren komentuan. Eguerdian, Lasarte-Oria herri bezala eratu zeneko lehenengo akta irakurri zuen Xabier Egea udaleko idazkariak. Ondoren, Jesus Zaballos alkateak bere diskurtsoan eskerrak eman zizkien zinegotzi eta udaleko langile izandako guztiei egindako lanaren gatik. Herria eraiki zuten herritarrentzat ere izan zituen hitzak. Ondoren Zero Sette akordeoi orkestrak Lasarte-Oriako ereserkia jo eta bertaratuokoei abestu egin zuten.

20an Loidi Barreneko frontoian ospaturiko erromeriak eman zion amaiera ekitaldiz betetako asteari, danborrada, sorgin dantza, futbol partida... Isla plazan ipinitako haurrentzako parke erraldoian ere gustura ibili ziren haurrak jolasean eta saltoka.



13 "Beltzak Ostadar Jalai" Errugbi Eskolak kamiseta berria aurkeztu zuen: Beltzak Ostadar Jalai Errugbi eskolak bere jantzi berriaren aurkezpena egin zuen.

Kamiseta berriak diseinu modernoa du eta eskolaren babesle den Jalai tabernaren logotipoa du.



14 Mendeurrena ospatzen: Lorenza Vegas Calvo, 1911. urteko otsailaren 14an Salamancako El Saugo herrian jaioa, duela 18 urte etorri zen Lasarte-Oriara bere senarrarekin batera, Juana alabaren etxera bizitzera.

Bere urtebetetzea ospatu zuen familia eta lagunen artean. Jesus Zaballos alkatea eta Ramon Uribe-Etxeberria apaiza ere zoriotzera hurbildu ziren hain egun berezian.

17 Euskadiko Atletismo txapelketan bikain herriko kadete eta juniorrak: Oskar Goikoetxeak zuzentzen duen LOKEko neska mutilak lau domina eskuratu zituzten. Irati Larrañagak junior mailako luzera eta jauzi hirukoitzeko urrezko dominak eskuratu zituen.

Era berean, Gaizka Ormazabal hirugarren izan zen juniorretako 200 metroko proban. Ane Galardi kadeteak ere brontzeko postua eskuratu zuen luzera jauzian.

19 Amaia Salsamendik urrezko domina Andoaingo VI. Piano jaialdian: Andoaingo Udalak eta Seiasle elkarteak antolatutako Andoaingo VI. Piano jaialdian Garbiñe Arruabarrena irakaslearen Amaia Salsamendi ikasleak urrezko domina lortu zuen.

19 Bi tona elkartasun Saharako kanpamentuetara. Euskal Karabanarako bi tona produktu eta elikagai bildu zituzten Lasarte-Orian Sahara Herriko Lagunek eta pozik ziren herritarrek krisi egoera honetan egindakoagatik: "Gauza handia da lasarteoriarrek garai hauean bi tona ematea. Horrek saharar herrian pentsatzen dutela adierazten du" aipatu zuen Hauari sahararrak.



24 Etxebizitzaren zozketa: Goiegi Ibarra eta Zabaleta Berriko promozio pribatuko 127 etxebizitzaren zozketa egin zen Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan.



28 Argi eta Iñaki oroitu zituzten: Udaletxe aurrean euskal presoaren senide eta lagunak egin zuten elkarretaratzean, 2003ko otsailaren 28an Albaceten Almeriako espetxera bisitan zihoazela, auto istripuz hil ziren Juankar Balerdi presoaren ama eta anai, Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi gogoratu zituzten. Gainera, espainiar gobernuak darabilen sakabanaketa politika salatu zuten, "Egin dezagun bidea, Euskal Presoak Etxera" pankartarekin.

28 Somotoko auzia berriro piztu zen: Oposizioko alderdiek diru laguntzen ikerketa batzorde berezian oztipoak daudela salatu zuten eta erregistroari Ana Urchueguiaren ondasun eta jardueren aitortpena eskatuko ziotela jakin arazi zuten.

28 Andaluzia eguna ospatu zuten: Semblante Andaluz elkarteak asteburuan hainbat ekitaldi antolatu zituen Andaluziako eguna ospatzeko: Semblante Rociero abesbatzaren eta Barakaldoko Hijos de Jaen taldearen emanaldiak eta amaiera borobila emateko, ohorezko ardoa eta Andaluziako produktuen dastatzea egin zuten elkartean.



*Gustuko al duzu abestea?
Zatoz gure artera!*

Tel.: 943 365145 / 943 363656 • LASARTE-ORIA

Urteberri on !

ALBOKA



ABESBATZA
LASARTE-ORIA





Amaia Gonzalez dantzaria, txapelkun European

05 Amaia Gonzalez dantzari lasarteoriatarak bi sari lortu zituen Europako Areto Dantza Txapelketan. Otsailaren 28tik martxoaren 5era bitartean jokatu zen Torremolinosen, Malagan, eta Amaia Gonzalez Caballero herriarrak hartu zuen parte, aste bete irautean duen txapelketan, egun bakoitzean dantza modalitate batean lehiatuz: Tangoa, vals-a, pasodoblea, salsa eta dantza konbinatua (tangoa, pasodoblea eta vals-a). Azkenean Europako dantza konbinatu eta pasodoble sariak ekarri zituen etxera Amaiak.

06 Ibarburu Euskadiko txapelkun: Buruntzaldea Igeriketa taldeko Iñigo Ibarburu igerilaria Euskadiko txapelkun izan zen Euskal Herriko infantil mailako neguko txapelketan tximeleta probetan eta 100 metro libreetan zilarrezko domina eskuratu zuen.

07 Zinema Soziala Denok Kiden: "Yo, también" filmarekin hasi zen Danok Kidek antolatutako VII. Zinema Sozialaren zikloa. Pelikularen aurretik Adimen urritasunari buruz aritu ziren Gureako langunak.

14an inmigrazioa joratzeko "Aguia con sal" filma eskaini zuten eta 21ean, kooperazio eta elkartasuna "Retorno a Hansala" pelikula eta "Medicus Mundi" elkartearen eskutik.

07 Atzegiren 50 urteko ibilbidea iruditan: Gipuzkoan sortu zenetik 50. urteurrena ospatu zuen Atzegik, adimen urritasuna duten pertsonen laguntzeko elkarrekin eta bere historiako kartelen erakusketa, "1960az geroztik etorkizun hobeak imajinatzen", jarri zuten Kultur-etxean. Zintzilikatutako karteletako argazkietan bi herritar ere ageri ziren, Jon Roncero eta Asier Berraondo.

07 Iñaki Petxarromanek liburua argitaratu zuen: "Lurra, zorua bailitza" laugarren liburua argitaratu zuen Iñaki Petxarroman kazetari eta idazle lasarteoriatarak. Lan honetan, Ama lurrak Euskal

Herrian sufritu dituen erasoaren bilduma egin du, hainbat datu jaso eta irakurleari gogoetarako bidea irekitzeko asmoz.

Egungo munduak arazo ekologiko handiak dituela eta, etorkizunari begira, atzerako bidaia proposatzen du Petxarromanek, sistema ekonomikoak bultzatutako bidearen aurkako norabidea hartzea, alegia. Txintxarrik egindako elkarriketan idazleak salatu zuenez "porlanezko mundua eraiki dugu".

08 Emakume Langilearen Nazioarteko Egunean ekin-tza ugari: Emakumeen Zentro Zibikoan, birziklapen tailerra, emakume langileak protagonista diren filma, solasaldi eta hitzaldiak ere izan ziren. Ostiralean Helduen Hezkuntzako Lan eta Lan antzerki tailerraren "La Ratona" antzezlan eskaini zuten kultur etxean eta ospakizuna Araeta jateko afariarekin amaitu zuten.

08 150 arbola landatu ziren Zuhaitzaren egunean. Herriko ikastetxeetako haurrak Buruntz Azpi mendiko magaletan pagoak, lizarrak, haritzak eta urkiak landatzen aritu ziren, herriko lorazainen aholkuak jarraituz. Guztira 75 zuhaixka landatu zituzten gaztetxoek eta hurrengo egunean, berriz, helduek beste 75 zuhaitz landatu zituzten.

12 Criado eta Cruz de Eulale ehizan irabazle: Buruntz Azpi ehiza eta arrantza elkarteak ehiza txapelketa antolatu

zuen Buruntza mendiko magaletan. Senior mailan, Jesus Criado izan zen irabazlea eta bigarren sailkatu zen Luis Sanchez.

Hirugarren postuan geratu zuen, Asier Olazabal. Beteranoetan Juan Cruz de Eulale izan zen txapelkuna.

13 Pili Bodegas Lilatoian garai-le. Donostiako XXII. Lilatoian bi mila emakume baino gehiago bildu ziren hiriburuko kaleetan barrena korrika, horietatik 30 inguru lasarteoriatarak eta hain juxtu, irabazlea Lasarte-Orian bizi den Pili Bodegas izan zen 18 minutu eta 17 segunduko denborarekin.

17 Adinekoen bizi kalitatea hobetzeko hitzarmena: Adinekoen bizi kalitatea hobetzeko asmoz, Lasarte-Oriako udalak hitzarmena sinatu zuen Biyak Bat erretiratu elkartearekin. Menpekotasuna eta isolamendua saihesteko eta norberaren osasuna-autonomia garatzeko.

Jesus Zaballos alkatearen eta Merte Galdos Biyak Bateko lehendakariaren artean hitzartutakoaren arabera, Udalak kale Nagusiko eraikina utziko dio erretiratu elkarteari bere ekintzak bertan burutu ahal izateko. Horrez gain, Udalak 3.000 euroko diru-laguntza emango die.

Bere aldetik, erretiratu elkarteak konprometua hartu du, bere ekintzen artean, gimnasia, yoga, aerobic, eskulanak, kantua, urrezko etzeietako omenaldia, liburutegia eta mahaiko eta mugimendu jokoak mantentzeko.

17 Pello Eskisabel epaile frantsesen aurrean: Pello Eskisabel aurkako epaiketa hasi zen. Euskal Herria eta bere historiaren berri eman zuten epaiketaren lehen saioan.

"Gaur, martxoaren 17an, atxilotuak izan ginenetik ia sei urte pasa direla, Pariseko Auzitegi Berezira ekarri gaituzte eta gu epaitzearekin batera, Euskal Herria aspalditik bere askatasunaren alde garatzen ari den askapen borroka epaitu nahi duzue" adierazi zioten epaiketari Pello Eskisabelek.

Manu Ugartemendia eta Eskisabelen ustez, "auzi-fartsa" besterik ez zen epaiketa, ez zioten epaiketari legitimitaterik onartzen eta Euskal Herriaren historia eta beraien borroka xehetasunak azaldu zizkieten, "Frantzia ere saiatu da gu euskaldun gisa desagerrarazten".



19 Antton Garin, Sagardoaren Kofradiako kide: Hernaniko Tolare elkarteak Sagardoaren Kofradiako kide izendatu zuen Antton Garin. Zabaleta auzoan bizi den hernaniarrari urtetan bertsuaren eta bertsolaritzaren alde egin duen lana aitortu nahi izan zioten. Anttonen aitona Olegario Garin, Txirrita eta Pello Errotarekin aritu zuten bertsotan besteak beste.

Gure Ametsa: 20 jardun 20 urte ospatzeko

26 Gure Ametsa elkarte 1991. urtean sortu zen eta 2011. urtea, ospakizun urte izan da elkartearentzat. Urte osoan zehar, 20 ekintza burutu zituzten abendura bitartean, urte bakoitzeko ekintza bana. Horien artean lehenengoa, ospakizunaren aurkezpen berezia izan zen apirilaren 26an.

Bertan 20. urteurrenean egingo zituzten ekitaldien berri eman zuten eta ondoren, eurek egindako pankarta jarri zuten balkoian. 2011n, "20 urte 11 bertute" izan da euren leloa.



20 Lore eskaintza Froilan Elesperi: Froilan Elespe, Lasarte-Oriako alkateordea hil zutela, hamar urte bete ziren egunean PSE-EE alderdiko kideek Elesperen oroimenez lore eskaintza egin zuten herriko hilerrian. Bertan, besteak beste, Jesus Zaballos Lasarte-Oriako alkatea, Iñaki Arriola Gipuzkoako Idazkari Nagusia, herriko zinegotziak, alderdi kide eta lagunak egon ziren alarguna eta familia-aren ondoan.



26 Elkartasunari bultzada Ostateren eskutik: Ekuadorren "Esmeraldas" proiektuarentzat laguntza biltzeko helburuarekin Elkartasun Jaia egin zuten Ostarte elkarteak laguntzaile gazteek. Goizeko 11:00etan hasi eta eguerdira arte haurrentzako tailerrak, bidezko merkataritza postua eta taberna txiki bat jarri zituzten Brigitarren plazan. 19:00etatik gauerdira bitartean, musika izan zen protagonista Andatza plazan. Bertan A Human Disaster, Tamerlayn, A pie de Calle eta Seventh String taldeek kontzertua eskaini zuten.

26 Calçot jana, Buruntz-Azpi elkarteak: Buruntz-Azpi elkarteak Calçotada festa egin zuen. Gironako Porqueres herritik etorritako Josep eta Mariak 500 calçot inguru ekarri eta erre zituzten Basaundi auzoko elkarteak. Urtero bezala, Calçotak jateaz gain arkume erreare dastatzeko aukera izan zuten bertan bildutako 65 lagunek. Aurtengoarekin jada hirugarren urtez ospatu dute Calçot jana Lasarte-Orian eta horrela jarraituz gero, tradizio bihurtuko da.



20 Flash Mob erraldoia Zubietan: Errauskailuaren erakuntzaren moratoria eskatzeko jendeasko bildu zen Zubietan. Gipuzkoa Zero Zaborrek deituta, Flash Moba-a grabatu zen festa erraldioan. Dantza behin baino gehiagotan egin zen, eta saio batzuetan kartulina berdeekin, MORATORIA hitza osatu zuten dantzariak..

27 Euskal Krosa Atsokabakaren: Euskarari eta kirolari bultzadatzeko bat emanez giro bikainean burutu zen Eneko Castro atletaren omenezko XIV. Euskal Krosa Atsokabak inguruan. Landaberri ikastolak urtero antolatzen duen euskal krosean 330 bat neska mutilak hartu zuen parte eta domina bana eraman zuten guztiek etxera.



29 Euskadiko Kutxa euskara sustatzeko prest: Buruntzaldeko Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnieta Udalek Euskadiko Kutxarekin euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena sinatu zuten eta beraz udalari hauetako bulegoetan euskararen presentzia areagotzen saiatuko da bost eremutan zenbait neurri hartuz, hala nola, bezeroarekin duten harremanean, eskaintzen dituzten zerbitzuetan, langileen eremuak, kanpo komunikazioari dagokionean eta idatzizko dokumentazioan.

Gauzak honela, sinatzaileek hartzen duten konpromisoetako bat haien arteko harremanak euskaraz izatea da. Honetaz gain, euskara ahalik eta esparru gehiengotan erabiltzen saiatuko dira.

30 Bertsolaritzaren harrobia lantzen: Landaberri eta Sasoteta-Zumaburu ikastetxeetako 5. eta 6. mailakoak eta DBHko ikasleek bertsoak gozatzeko aukera aparta izan zuten, XVIII. Bertso paper lehiaketako sari banaketan. Izan ere, ez zen sari banaketa soilak izan.

Beñat Gaztelumendi eta Unai Muñoa bertsolariak bertan egon ziren eta haurrak lanean jarri zituzten. Titakun kultur elkarteak, Lasarte-Oriako bertso eskola eta Udalaren laguntzaz antolatzen du lehiaketa hau.

30 Urchueguiaren aurkako EBren salaketa artxibatu: Gipuzkoako Fiskaltzak EBko Rikardo Ortegak Ana Urchuegia alkate ohiaren aurka aurkeztutako salaketa artxibatu zuen.

Rikardo Ortegak martxoaren 22an jarri zuen salaketa alkate ohiak Somotón dituen ondasunen inguruan. Salaturakoa garrantzia gutxiak dela erabaki zuen fiskaltzak.

ANTONIO URRUZOLA

ZURGINTZA AROZTEGIA

EBANISTERIA Etor zaituz erakusketak ihustera!

Asteasuain polig. 3. pabilioia
20170 USUMBIL (Gipuzkoa)
Tel/Fax: 943 376415
Móvil 687 845597



UGARI

Supermerkatua

URTEBERRI ON!

Igande eta jai egunetan ere goizez irekita!

Ola kalea 6 beheko • Lasarte-Oria • Tel: 943 36 21 60





Giro bikaina izan zen herrian Korrika pasatzean

17 Giro zoragarria izan zen goiz-goizetik Lasarte-Oria Korrika pasatzen zela eta. Jende ugari bildu zen eta korrika egin ondoren, txokolate beroa dastatu zuten korrikalariak Sagardotegi kalean. Muntteri AEK euskaltegiako arduradunak pozik agertu ziren Korrikaren 17. edizioko parte hartzearekin. 14an Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko ikasleek eman zioten hasiera Korrika Txikiari eta Landaberri ikastolakoek ere lekukoa hartu zuten ibilbidean zehar. Andatza plazan amaitu eta bildutako guztiekin batera Korrikako flash mob-a dantzatu zuten.

16an ere, bezperan alegia, ekitaldi ugari egin ziren. Goizean Ostadarrek antolatuta haurrentzako olinpiadak egin ziren Andatza plazan, eta ia ordu berean, Xumelako eta Albokako kideak herriko hainbat lekutan abesten aritu ziren. Kukukako antzerki taldeak eta Amalur eskolako musikariak kaleak girotu eta alaitu zituzten. Ondoren, babarrun jana egin zen Andatza. Ane Labaka eta Asier Azpiroz bertsolariak aritu ziren, Mikel Bermejok bakarrikzeta eskaini zuen, Kukukako dantzariak kalejira egin zuten eta amaitezko Sagardotegi kaleko erromerian musikoak dantzatu zituzten Erketzen laguntzarekin. Gauean berriz, Jalgin bakarrikzeten txanda izan zen, bertan Mikel Bermejo, Mailu Arruti, Ione Gorrostazu eta Olatz Etxeberriak eskaini zituzten saioak.

01 Leire Vegak irabazi zuen "Motxian eby" lehiaketa:

Leire Vega Lasarte-Usurbil Institutuko ikasleak idatzi zuen mezurik onena "Motxian eby" sms lehiaketan. "Nr bhotzan zde bna txmnoarn iprdia bno itxsago zr bna, amz!" mezuari esker



s a k e l e k o a eskuratu zuen. Buruntzaldeko Udalek antolatutako lehiaketak herriko gazteen arteko komunikazio informalean euskararen erabilpena sustatzea izan zuen helburu nagusi.



03 Ane Galardi Gipuzkoako txapeladun: Urrezko bi domina eskuratu zituen Ane Galardik Gipuzkoako eskolarteko atletismo txapelketan, Hernanin, bata 80 metro proban eta bestea luzera jautsian.

02 Marco Ruizek eskuratu zuen K-1 gerrikoa: Amateur mailako Euskadiko K-1 txapelketa eta Kick Boxing borrokak ikusteko parada egon zen Michelingo kirol gunean. Marco Ruizek eskuratu K-1 gerrikoa.

02 Borrokan dominak eskuratu dituzte judoek: LOKEko judo saileko mutil eta neskek berriro ere dominak eskuratu zituzten. Leire Zubizarretak borrokako Espainiako titulua eskuratu zuen Granadan burututako junior eta infantil mailako borroka libre olinpiko txapelketan. Amaia Curielek bigarren postua eskuratu zuen eta Fermin Baldak brontzezko domina lortu zuen infantil mailan.

05 Urchuegia kasua Parlamen-tuan: Alkate-ohiak Eusko Legebiltzarreko Europako eta Kanpo Harremanetarako Batzordean azalpenak eman zituen.

Aralar, Eusko Alkartasuna eta Ezker Batua Berdeak taldeek eskatu zuten Urchuegia Lasarte-Oriako alkate ohi eta Eusko Jaurlaritzaren Txile eta Peruko egungo ordezkariak argibideak emateko Diario de Noticias egunkarian bere jokabideari buruz argitaratutako informazioei buruz.

10 Mendi bizikleta zeharkaldi jendetsua:

Euskal Herri osotik etorritako 336 kirolariak, gehienak Lasarte-Oria eta ingurukoak, hartu zuten parte herriko III. mendi bizikleta ibilbidean. Saiatuz taldeak eta MKL dendak antolatutako proban txirrindulariek Andatzatik 28 kilometroko ibilbide motza edota Buruntzatik 38 kilometrokoa luzea egin behar zuten.



07 Euskara ez dakitenak nola erakarri aztertzen: Euskara zerbitzuetako teknikariak herrian bildu ziren III. Udaltopen.

Bi egunetan, herri desberdinetako euskara teknikariak "Zer da euskara ez dakitenentzat?" galderari erantzuten saiatu ziren eta pertsona horiek euskarara hurbildu daitezkeen udalek zer egin behar duten eta nola aztertu zuten Manuel Lekuona kultur etxean egindako jardunaldietan.

kilometro egin behar izan zituzten lasterka, 36 kilometro txirrindan eta ondoren beste 4 kilometro korrika. Endika Gartzia herritarra izan zen helmugara iristen lehena.

10 Pili Bodegas berriro garaile: Donostiako ARCCO hiri krozean Pili Bodegas izan zen garaile emakumezkoen mailan eta gizonetakoetan, Raul Gomez lasarteoriarra, zortzigarren sailkatu zen.

12 Hiribusa arautzeko pausak: Ohiz kanpoko udalbatzaurrean Hiriko Garraio Zerbitzu Publiko Erregulararen araudi erregulatzaila onartzeko pausak eman ziren. Bestetik Hiribusaren esperientzia pilotua justifikatzeko memoria PSE-EEren 7 botoei esker onartu zen. Plataforma, Hamaika1, EAJ eta Ezker Abertzaleak abstentziora jo zuten.

10 Endika Gartzia Gipuzkoako duatloi txapeladun: Azkoitiko duatloiren XII. edizioan Gipuzkoako duatloi motz txapelketa jokatu zen. Ia 200 parte hartzailek 8

12 Ostadarrek GES aseguruekin hitzarmena sinatu du: Ostadar Kirol Fundazioak eta Lasarte-Oriako Ges Aseguruak beste urte baterako hitzarmena sinatu zuten eta beraz sei urtez jarraian izan du Ostadarreko gazteen taldeak Ges Asegureb babesa.

InmoGes

Inmobiliaria

2012 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU !

Kale Nagusia 12-3
Lasarte-Oria
Tel.: 943 376662

ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomo ontzutua	Etxeko txorizoa
Tripakiak- Saltxitxak	Basurde burua
Txistorra	Baserrri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren Kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451
Lasarte-Oria

ile-apaindegia

2012 zoriontsua opa dizuegu !

Geltoki kalea 3
Mobila: 600 523988
LASARTE-ORIA



Porrotx eta Mari Motots lagunekin Etioipian

18 Porrotx eta Mari Motots, bi astez egon ziren Etioipian, apirilaren 18tik 30era, senide eta lagunekin, Angel Olaran Hernaniko misiolariak Wukro hirian dauzkan proiektuak ezagutzeko. 20 urtetan hainbat gauza jarri ditu martxan Aita Zurioren lagunarteko misiolariak, besteak beste, Lanbide eta Nekazal Eskola, zaharrentzako jangela solidarioa, eta umezurtzei laguntzeko, arbolak landatzeko edota edateko ura etxetara eramateko ahaleginak. Porrotx eta Mari Motots han ibili ziren eskolak ezagutu, arbolak ureztatu eta haurrei magia egiten besteak beste.



30 Belfast-eko bertso afarian: Belfast, Ipar Irlandako hiriburuan urtero egiten den Bertso Dinner-ean izan ziren dozena bat herri-tar. Aurtan, Amets Arzallus eta Andoni Egañak eskainitako saio bikainaz gozatzeko aukera izan zuten. Belfasten eta bertso bazkarian izan ziren Leire Elizegi, Saioa Elorza, Maialen Goikoetxea, Iñigo Etxaniz, Jon Ander Goikoetxea, Ioritz Iparragirre, Iker Ortega, Ane Labaka, Irati Perez, Tomas Arruti eta Iñaki laben. Bertso Dinner-a zuten helburu, baina Dublin eta Belfast hiriburuak ezagutzeko aukera ere izan zuten.



13 Atsotabarrek langileak lan baldintza duin eske: Atsotabar zaharren egoitzako langileak udaletxe aurrean bildu ziren lan baldintza duinak eskatzeko.

Otsailaren 23an elkartu ziren langileen ordezkariak Lasarte-Oriako Atsotabarrek zaharren egoitza kudeatzen duen CLECE enpresako kideekin akordio batera iristeko asmoz.

Bilera horretan, CLECE-ko ordezkariak langileen proposamenak aztertze-kotan gelditu zen. Ia bi hilabete igaro ostean, "soldata murrizketekin etorri dira, ez digute Kontsumoko Prezioen Indizea ere igo" azaltzen dute langileek.

Hauek salatu dutenez, "Udalak KPla igo egin dio CLECE enpresari zerbitzua emateagatik jasotzen duen urteko diru kopuruan".

Bitartean langileek ez dute soldata igoerarik izan eta plus guztiak izoztuko dizkietela aipatu dute, gaueko lanaren plusa izan ezik.



15 Manifestazio jendetsua bizi arteko kartzela zigorraren aurka: Lasarte-Oriako hiru presok, Ina Orotegi, Mixel Turrientes eta Kepa Rezabalek aurtan kartzelan 25 urte beteko dituztela gogoratu eta bizi arteko kartzela zigorra ezarri nahi zaiela salatzen hainbat lagunek herri-ko kaleak zeharkatu zituzten. Hain juxtu "Biziarteko zigorrik ez, aski da" pankartaren atzean Zumaburutik itzulia egin eta Hipodromo kalean amaitu zen protesta.

16 Gonzalo Sukunzak irabazi zuen Nafarroako San Adriango lasterketa: Zumeatarra Andoaingo klubean diharduen Sukunza lasarteoriatarrek garaipena lortu zuen San Adriango lasterketaren bigarren edizioan, 1:15:00 denborarekin.

17 David Martin garaile Huar-ten: Huarten antolatzen den Hiru Herri lasterketan garaipena eskuratu zuen David Martin Lasarte-Oriako atletak.

Honetan, faborito zen Jaioad Boualama lasterketako buruan bakarrik zihon, baina huts bat egin zuen eta horrek, David Martin helmugara lehenengo iriste-a ekarri zuen, 32:20 denbora eginaz.

17 Salazar dendak kalitate-ziurtagiria jaso zuen: Iñaki Gonzalez de Salazar, Salazar dendako jabeak UNE 175.001 arauko kalitate-ziurtagiria jaso zuen. Gipuzkoako Merkataritza federazioak Donostia-

ko Miramar Jauregian burutu zuen urteko asanbladan izan zen. Era honetara, urte askotako jarduna saritu zuen Gipuzkoako Merkataritza federazioak

29 Leire Pajin Gure Ametsa taldeko gazteekin: Gure Ametsa minusbaliotasuna duten pertsonen aisialdi taldearen XX. urteurrena dela eta, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun ministroak, Leire Pajin taldearen lokala bisitatu zuen. Gure Ametsako gazteentzat ezusteko handia izan zen ministroaren bisita eta Leire Pajin oso pozik azaldu zen bertan egoitekin eta gazteekin eta haien gurasoekin egon zen hizketan.





INTZA
elkartea

2012 ZORIONTSUA OFA DIZUEGU !





Sagardotegi kalea • LASARTE-ORIA Tel.: 943 36 1534

Gaueko Itzalak taldeak diskoa aurkeztu zuen Flor de Caña tabernan

06 "Gaueko Itzalak"en lehen diskoaren aurkezpena egin zuten maiatzaren 6an ostiralean Flor de Caña garai bateko "Zulon". "Lurra hiltzen" lehen diskoa ekoiztu eta argitaratu du Gaueko Itzalak taldeak eta herritarren aurrean aurkeztu ahal izan zuen. Taldearen azken urtetako lanaren emaitza, abendu eta urtarilla artean grabatu zuten Zarauzko Fidelenea estudioan Mikel Anestesiarekin, eta ahal bezain beste zabaltzeko sei eurotan dago salgai. Gaueko Itzalak taldearekin batera, herriko Hilotz taldeak jo zuen aurkezpenean. Hauek ere bazituzten pozik egoteko motiboak, Lasarte-Oriako metal talde sortu berriko partaideek Donostiako Egia auzoko Nazaret eskolako II. rock sariketan lehen saria eskuratu baitzuten. 2009ko abenduan sortu zen taldea, 2010ean jotzen hasi ziren, taldea finkatu zuten eta heavy metalaren inguruan euskaraz kantatzen jarraitzeko asmoa adierazi zuten saria jaso ondoren.

01 David Martin garaile Andoaingo lasterketetan. David Martinel irabazi zuen maiatzaren 1ean Andoaingo Santa Krutz jaietako XXIII. lasterketa. 274 korrikalarik parte hartu zuten 10 kilometroko ibilbidea zuten proban. Gonzalo Sukunza ere lehenengo izan zen San Adrianen.

02 Maratoia Belfasten: Tomas Arruti eta Iñaki laben Belfasteko maratoian parte hartu zuten. Proba "gogorra, baina aldi berean oso polita" Arrutik kontatu zigunez. Belfast osoa ikusten zen, jaitsi, ibai bazterretik eta itsaso ondotik ere beste zati bat egin eta erdigunean amaitu zuten.



02 Matxain eta Iglesias arrantzan irabazle: Buruntz-Azpi elkar-teak bere 50. urteurrena ospatzeko hainbat ekintza antolatu zituen. Leizaran ibaian, zizare-arrantza eta arrantzaldi arineko txapelketak antolatu zituen. Zizare-arrantzan Jose Antonio Matxain izan zen garailea eta bigarren postua, Antonio Dominguezek eskuratu zuen; arrantzaldi arineko txapeladuna, berriz, David Iglesias izan zen eta zilarrezko postua Jose Antonio Matxainek lortu zuen.

04 Herri arabiarren iraultza ulertzeko hitzaldia: Ibon Artola, Euskal Herria sozialista taldeko kideak herri arabiarren iraultza ulertzeko hitzaldi interesgarria eman zuen Jalgi tabernan.

Inguruaren azterketa orokorra egin ondoren Egipto, Tunez eta Libian zentratu zen. Iraultzen hastapenak eta egungo egoera azaldu zituen. Hedabideek amaitutzat eman zuten iraultza, baina hor jarraitzen duela argitu zuen.

07 Bertso jaialdi ederra: Udeberriko bertso saioa bikaina izan zen Manuel Lekuona kultur etxean. Andoni Egaña, Arkaitz Estiballes, Unai Muñoa eta Ane Labakak kantatu zuten 300 lagunen aurrean. Saioan, Lasarte-Oriaren historia eta mende hasierako garaiak errepasatzeko eta ezagutzeko aukera izan zen.

Aitor Lasak soinuarekin, Arantzazu Mugikak biolinarekin, Musika eskolako irakasle eta ikasleek, Tik-Tak Klak klaket taldeak, Ane Minguez-ek eta Ana Ramiro-k Charlestona dantzatzen, Kukuka antzerki taldeak, Petra Esler-ek, Xumela abesbatzak, Erketzeko dantzariak eta musikariak, saio bikaina osatu zuten lau bertsolariekin batera. Ttakunek eta Bertso Eskolak bertsoak beste diziplinekin nahastuz, XX. mendeko errepasoa egin zuten eta argi utzi Lasarte-Oria udalerrri izan baino lehen herri izaera eta sentimendua bazuela eta bere historian eragina izan duela.

08 Erromeri paregabea Azkorten: Eguraldia ederra lagun, herri-ur ugari bildu zen Azkortekeko ermitan urtero egiten den erromeriara.

09 Igerilarien beste erakustaldi bat: Buruntzaldea IKTko infantil, junior, promesa eta absolutu mailako kideek V. Sopelanako Udala sarian parte hartu zuten.

Hiru txapeladun Alazne Egiazabal absolutu mailan, Itsaso Tolosa eta Iñigo Ibarburu infantiletan; bi txapeladun orde, Alazne Egiazabal eta Naroa Goikoetxea eta Euskadiko lau marka gutxieneko osatu zituzten.

09 Marrazki eta Margo Erakusteta: Lasarte-Oria Auzo Elkar-teak XXV. Marrazki eta Pintura erakusketa ireki zuen Manuel Lekuona kultur etxean. Oskar Tena irakaslearekin egindako lanak erakutsi zituzten.

09 Etikaren erabilera aztergai: Gaur egun etikak bizi duen krisia eta zehazki, ekonomia-aren, ingeniari-aren genetikoaren eta hedabideen arloan etika nola erabiltzen den aztertutako Danok Kide elkar-teak kultur etxean antolatutako Balioetan Hezi VIII. jardunaldietan.

Jose Maria Setien, Arturo Garcia, Pablo Eraso eta Juan Pagolaren hitzaldiak entzuteria herritar ugari hurbildu zen eta galdera ugari egin zizkieten hizlariak.

10 Botiken erabilera hobetzen: Lasarte-Oriako alkateak, Jesus Zaballos eta Gipuzkoako Sendagailuen elkarteko presidentek, Angel Garayk, elkarlanean hitzarmena sinatu zuten etxeko laguntzaren erabiltzaileek medikamentuen erabilera hobetzeko programa udalerrian martxan jartzeko.

Hitzarmen honen helburua etxeko laguntza sisteman atxikita dauden pertsonen botiken erabilera hobetzea da. Era berean, pertsona hauei sendagaiak eskuratzea erraztea eta kasu bakoitzeko agindutako tratamendua betetzen laguntzea asmoa du programa honek.

11 Mendiz mendi, mendez mende Lasarte-Orian: Kutxak eta Foru Aldundiak bultzatuta Mendiz Mendi, Mendez Mende kanpainako autobusa Lasarte-Oriara iritsi zen.

06 Herriko komertzioaren alde: Lasarte-Oriako Udalak eta Aterpea Merkatarien elkar-teak herriko merkataritza dinamizatzea helburu duen 2011. urteko hitzarmena sinatu zuten.

Gauzak honela, komertzioa bultzatu eta herriaren bizi-kalitatea eta erakargarritasuna sustatuko duten negozio aukerak sortzeko, hainbat proiektu eta ekintza burutzeko akordioa sinatu zuten bi erakundeek, esaterako Stock eta Saldoen azoka.



Fernández
e h u n a k

Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!

2012 ALAIA OPA DIZUEGU !

Kale Nagusia 2 • Tel.: 943 361607 • LASARTE-ORIA

USURBIL
Garaiea

KONPONKETAKO TAILERRA

FIAT
LANCIA
SERVICIO

Unteberri on !

Zumaburu aparkalekua 18
Tel.: 943 362463 • Faxa: 943 360360
talleresusurbiladm@hotmail.com

patrizio

Unteberri on gustioi !

Uistin Kalea 1
Lasarte-Oria

Hauteskundeen ondoren ez zegoen alkatetza argi

22 Hauteskundeen emaitzak ikusita Zaballosek alkatetza galdu zezakeela ikusi zen. Udal hauteskundeak izan ziren maiatzaren 22an eta herritar gehienek PSE-EE bozkatu bazuten ere, aurreko legealdian baino zinegotzi bat gutxiago lortu zuten. Abstentzioa %35,88koa izan zen (5.092 lagun), 2007an baina txikiagoa hortaz.

Bozkatzera joan zirenetatik 3.147 lagunek PSE-EE bozkatu zuten, eta zazpi zinegotzi ditu alderdi honek (2007an baino bat gutxiago). Bilduri berriz, 2.168 lagunek eman zioten bere bozka, beraz bost zinegotzietan indartsu sartu da Udalean eta herriko hauteskundeetan igoera handiena hark izan zuen. EAJri 1.091 lagunen bozkek bi zinegotzi eman dizkiote, LOH Plataformak berriz, beste zinegotzi bat lortu du eta PP ere berdin geratu da, zinegotzi batekin.



Hiru egunez, Gipuzkoako natura eta kultura-ondareak ezagutzeko aukera izan zen gure herrian kanpaina honi esker eta ugari izan ziren Brigitarren plazan zegoen autobusera hurbildu ziren herritarrek.

11 Udalak diru laguntza bidali zuen Lorcara: Lorca hirian lurrikarek sortutako kalteei aurre egiteko aparteko baliabideen beharra eta biztanleek bizi duten larrialdi egoeraren aurrean, Lasarte-Oriako Udalak, Gurutze Gorriak kaltetuei laguntzeko egindako deialdiari erantzunez, 6.000 euro eman zituen.

14 Jon Begiristain eta Xabier Etxezarretaren eskuetan da txapela: Ostadar K.F.-k antolatzen duen Gomazko pilotako pala txapelketan eskratu zuten Jon Begiristain eta Xabier Etxezarretak. Final handia, Bernaitz Odriozola eta Santi Martin Jon Begiristain eta Xabier Etxezarretaren aurkako partida izan zen.

Hirugarren eta laugarren postuak lortzeko norgehiagoka, Iñaki Lizaso eta Joserra Alzibarrek Josu Iparragirre eta Iñaki Altzuri izan zituzten aurrez aurre. 30 eta 21 gailendu ziren Iñaki Lizaso eta Joserra Alzibar. Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziaga bikotea zazpi urtez nagusi izan arren, aurten ez ziren txapelketako azken fasera iritsi.



14 Naiara Lizaso igerilaria Gipuzkoako txapeldun bikoitza: Buruntzaldea Igeriketa taldeko alebinek Gipuzkoako txapelketa-Igerilari osoa eta eskolarteko sariketa jokatu zituzten Ordizian. Gipuzkoako eskolartekoan Naiara Lizaso txapeldun bikoitza izan zen eta Mikel Sotok bi laugarren postu lortu zituen. Naiarak 100m tximeleta eta 100m proba librean parte hartu eta bietan urrezko domina eskuratu zuen.



14 Carbayeda Gipuzkoako txapeldun: Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako Luken Carbayeda Urruzolak alebin mailako Gipuzkoako txapelketa eskuratu zuen, Seguran.

Bazpi eskolako gaztetxoak egin duen denboraldi onari amaiera emateko era ezin hobea izan zen garaipena. Izan ere, Luken Carbayedak parte hartu zuen hamar lasterketatik zortzi irabazi zituen, batean bigarren egin zuen eta bestean, erori, eta ezin izan zuen postu onik lortu.

14 Atletismoan hiru herritar Gipuzkoako txapeldun: Kade-te, jubeni, junior eta betearnoetako Gipuzkoako txapelketan hiru Gipuzkoako txapeldun berri izan ziren, Gaizka Ormazabal, Ane Galardi eta Santos Uribe.

Zumeatarra taldean dabilen Santos Uribe herritarrek, bost kilometro martxa proban urrezko domina eskuratu zuen 75 urte baino gehiagoko mailan.

LOKEko Gaizka Ormazabal Gipuzkoako txapeldun izan zen, 400 metroko hesi-lasterketan eta kadete mailan ere, LOKEk Gipuzkoako txapeldun berria izan zuen, Ane Galardi luzera jauziko txapela eskuratu zuen.

15 Gipuzkoako Errugbi eskolen topaketa: Beltzak Ostadar Jalai errugbi eskolak lehenengo aldiz antolatuta Gipuzkoako Errugbi eskolen topaketa egin zen Michelingo kirol guneko zelaian.

Benjamin eta alebin mailako lurraldeko hamar errugbi eskolako 200 bat haur bildu ziren eta haien trebetasuna erakutsi zuten.

16 Jorge Revuelta judoka, Gipuzkoako txapeldun: Hemanin burutu zen alebin mailako Gipuzkoako Txapelketan herriko judoka gazteek "lan bikaina egin zuten". 52 kg azpiko mailan Jorge Revuelta gaztetxoak eskuratu zuen urrezko domina eta Jone Arroyok maila berdinean brontzea lortu zuen.

Beteranoen Euskadiko Lehenengo Open-a egin zen Gasteizen eta Francisco Moralesek, "Kiko", urrezko domina lortu zuen bere mailan eta brontzekoa, sailkapen orokorrean.

16 Yoana Figuerasen Zinemaldiko kartelak: Herriko diseinatzaileak Horizontes Latinos, Zabaltegi eta Zinemaldiko kartelak egin zituen. Aurten lehiaketa publikoa egin da kartelak aukeratzeko eta Mara-Mara elkarteok 26 urteko lasarteoriarrak eginak hautatu dituzte. Berak egin zituen Horizontes Latinos, Zabaltegi eta Zinemaldiaren sekzio ofizialeko kartelak.



21 Izkiñak irabazi zuen Areto Futboleko finala: ISU Leihok eta Izkiña tabernak jokatu zuten berrito Areto futboleko finala eta Izkiña izan zen garaile. Hirugarren postua aldiz, Obelix taldeak irabazi zuen Illun F.C. 4-0 irabazita.

Leire Zubizarreta judokari eman zioten herriko kirolari onenaren saria eta Auzolan saria eliza atontzen duten emakume taldeari eman zitzaion.





PESCANORTE S.A.

Mokadu goxoen txokoa duzue gurea!

2012 ZORIONTSUA
GFA DIZU ÉGO !

LEIZOTZ poligonoa, D partzela
Andoain-Urnieta errepidean
ANDOAIN (Gipuzkoa)
Tel.: 943 304300
Fax: 943 304218
e-mail: pescanorte@suskalnet.net



Julio Sanz eta Laurentino Martin Gipuzkoako Txapeldun briskan

31 **Biyak Bat briskako Gipuzkoako Txapeldun:** Zahar eta pentsiodunen elkarteak antolatuta, Gipuzkoako mahai joko eta mugimendu jokoan txapelketako finalak jokatu ziren Altzan.

Lasarte-Oriako Biyak Bat elkarteak Julio Sanz eta Laurentino Martinek briskako finalean parte hartu eta txapeldun izan ziren. Hala ere, ez ziren txapelketa honetan parte hartu zuten herritar bakarrik izan.

Juan Mari Aristondo eta Jose Luis Mendiluce eskoba txapelketako finalerdietara iritsi ziren eta Emilio Barcena eta Victor Rodriguez potekora. •



21 **Tenisean hiru herritar Gipuzkoako txapeldun orde:** Michelingo Kirol Gunean Gipuzkoako eskolarteko banakako txapelketako finalak jokatu ziren eta herriko Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikate-txeetako hiru gaztetxo txapeldun orde izan ziren: alebin nesken mailan, Saioa Mendiluze, infatil nesketan, Paula Uli eta mutiletan Alex Garcia.

21 **Arantzatik oinez Lasarte-Oriara:** Ostadar Mendi elkarteak zenbait kide eta beste hainbat herritarrek, guztira Lasarte-Oriako 20 bat lagunek, Nafarroako Arantzako San Juan Xar eremutik, Lasarte-Oriarainoko mendi ibilbidea egin zuten, aurreko urteetan esaterako Arantzazutik, Aralarreko San Migeletik edo Arratetik bezala.

Aurten, Arantzatik atera eta Artikutzako parkea, Añarbe urtegiaren eremua, Epele herrixka eta Buruntzaldeko mendiak igaro ostean iritsi ziren herrira. Guztira hamabi orduko txangoa izan zen.

28 **Eskola Kirolaren Festa giro onean:** Lasarte-Oriako ikastetxeen Eskola Kirolaren festa burutu zen Michelingo kiroldegian, urte osoko entrenamendu eta denboraldiari jai giroan amaiera emanaz. Besteak beste, herri-kiroletan, atletismoan, saskibaloian, futbolekoan, errugbian eta tenisean aritzeko aukera izan zuten herriko neska mutilek.

Goizeko ekintzei amaiera emateko, parte hartzaile guztien artean opariak banatu ziren eta "Begiralearen Bila" jokoa parte hartzeko aukera izan zuten haurrek. Joko honetan abilenek opari bereziak jaso zituzten begiraleak aurkitu eta gero.

Arratsaldean jarraitu zuen festa, 16:00etatik aurrera benjaminen tenisean aritzeko aukera izan baitzuten.



23 **Antzerki eta dantza hamabos-taldia:** Antzerki eta dantza asteko lehenengo bi saioak ikusi ziren kultur etxeko aretoan. Bi aste-tan antzerkia eta dantza izan ziren herrian nagusi.



28 **Ostadar taldea, Kadete mailako neska Gipuzkoako txapeldun:** Ostadarrek Añorgako taldeari 2-1 irabazi zion Andoaingo larunbatean jokatu zen partida zailan eta Gipuzkoako txapelketa irabazi.

1-0 aurreratu ziren Añorgakoak lehen zatian, baina atsedendaldiko hausnarketa-oren ondoren norgehiagokari buelta ematea lortu zuten. Miriam Infante sartu zuen berdinketaren gola eta bigarrena Añorgako jokalarik batek bere atean.

28 **Urtzi Telleria hirugarren Gipuzkoako txapelketan:**

Urtzi Telleria hirugarren izan zen Urnietan ospatutako Harri txikien Gipuzkoako txapelketan; 125 kiloko zilindro berria, 112,5 kiloko kubikoa eta 100 kiloko bola jaso behar zituzten parte hartu zuten harri-jasotzaileek eta lan bakoitzarentzat hiru minutuko tarte izan zuten.

Irabazlea Aimar Irigoien izan zen, guztira, 9.050 kilo jasota; Urtzik, aldiz, 7.524 kilo altza zituen eta txapelketako hirugarren postua eskuratu zuen.

30 **Bertsoaren bidez ahozkotasuna lantzen:** 200 haur baino gehiagok parte hartu zuen aurreko, urtero bezala kultur etxean, egin zen Ahozkotasunaren festan.

Oholtzan taldeka kantatu zituzten bertsoak elkarrekin prestatu zituzten aurretik eskolan, gehienak umoretsuak izan ziren eta ederki pasa zuten kultur etxea leporaino bete zuten neska-mutil eta gurasoek.

2004tik Bertsolaritza eskoletan erakusten ari den Unai Muñozaren ueste Ahozkotasuna eta Bertsolaritzaren proiektua finkatuta dago eta ikasgeletatik herrira hedatzea da orain erronka.



DANI karrozeria

Trebeak gara
kolpe handiak konpontzen

- Kabina labeduna
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatuen garbiketa



2012 zoriontsua opa dizuegu!

Zirkuitu ibilbidea 12
20160 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 371440
Mobila: 608 391885
carroceriasdani@telefonica.net



Izkiña, Buruntzaldeko areto-futboleko txapelkun

04 Buruntzaldeko lehen areto-futboleko txapelketa jokatu zen Andoingo Allurralde kiroldegian. Ostiralean, final erdiak jokatu ziren. Lehenengoan, talde lasarteoriatarak Andoingo Ongi Etorri taberna gaingitu zuen eta larunbateko finalean, Izkiña eta Urnietako Elur elektrizitatearen arteko norgehiagokaz gozatzeko aukera izan zuten Allurraldera hurbildu zirenek.

Hasieratik, partidari nagusi izan zen Oscar Garciak zuzentzen duen taldea. Lehenengo zatian, lasaitasuna ematen zion lau gole-tako errenta lortu zuen herriko taldeak. Hala ere, bigarren zatian, erritmoa mantendu zuen Izkiñak eta arerioa kontrolpean izanik, beste hiru gol egin zituen. Honela, 7 eta 3 irabazi zion Urnietako taldeari. Era honetara lortu zuen Izkiña Tabernak Buruntzaldeko lehen Areto-Futboleko txapelketako sari nagusia.



01 Brancussi marrazki eskolako ikasleen erakusketak kultur etxean: Jose Manuel Mongek zuzentzen duen Brancussi marrazki eskolako ikasleek, seigarren urtez, erakusketa jarri zuten kultur-etxean.

Kolorez betetako olio-pinturak, arka-tzarekin edo akuarelarekin margotutako lanak aurkeztu zituzten.

01 Jai giroa Zabaleta auzoan: Igandean maiatzaren 1ean amaitu ziren Zabaleta auzo-ko jaiak. Ostirala arratsaldean euriak atsedena eman eta hurrek Teresa sorgi-naren etorrerarekin gozatu zutenetik jai giroa nagusitu zen. Porrotbek bota zuen txupina.

Dantza garaikidea Xumela abesbatza, Itzartu eta Ahuen taldeek kontzer-tua,... denetarik egin zen festetan.

04 Pailazoan LipDub-a: Herriko pailazo bihurriek, Pirritx, Porrotx eta Marimototsek 200 lagun baino gehiago bildu zituzten Villa Mirentxu inguruan.

Irrien lagun klubeko abestia ointzat hartuta, herriko elkarte eta hainbat lagu-nek lip-dub koloretsu eta dibertigarrian parte hartu zuten.



04 Prezio merkeak, bigarren eskuko azokan: Gauza asko prezio merkean erosteko aukera eman zuen Bigarren Eskuko Azoka interesgarriarekin eman zitzaion hasiera Aste Berdeari.

Azoka honetan saltzaileetako asko eta erosleak herriarrak ziren: Liburuak, jostailuak, mahai-jolasak, arropa, deko-raziorako objektuak, bizikletak, kirol-tresneria... denetik ikusteko aukera egon zen.



05 Rocioko giro alaiak Atsotak: Semblante Andaluz elkarrekin antolatutako XIX. Rocio Erromeria zela eta sevillana jan-tziak, paella, rebujitoa, fino ardoa, pasodobleak,... eta Andaluziako giroa nagusitu ziren Atsotakarako parke eta inguruan.

Arantzazuko Amaren parrokiari Rocio Amaren ohorezko meza egin zuten hasteko, eta bertatik eraman zuten parkera Rocioko ama birjina.

05 Bertso-Eskolako sei kide Gpuntuari aurrera: Karlos Aizpuru eta Andoni Egaña-ekin bertso-gintza trebatzeko ikastaroa egin zuten Ttakun Bertso Eskolako zazpi bertsolarietatik seik lortu zuten irailetik aurrera Gpuntuari Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako bigarren fasean aritzeko txartela. Han izango dira, Unai Gaztelu-mendi, Beñat Iguaran, Asier Azpiroz,

Are Labaka, Andoni Otamendi eta Unai Muñoa. Lehen fasean herriko bertsolari- en bakarra gelditu zen kanpoan, Zigor Iriondo.

05 Ormazabal eta Galardi atle-tak Gipuzkoako txapelkun: LOKEko Gaizka Ormazabalek junior mailako 220 metro proban eta Ane Galardi senior mailako luzera jauzian urrezko dominak eskuratu zituzten Gipuzkoako txapelketan.

Irati Larrañagak junior mailako jauzi hirukoitzean bigarren postua eskuratu zuen, Ane Galardi berak senior mailako hirugarrena eta Jose Ramon Latorre ere bigarren izan zen 200 metroan.

Bestealde, Euskadiko Eskolarteko Joketan Gipuzkoako selekzioarekin toitz Rodriguezek 100 metroan urrezko domina lortu zuen; Ane Galardik, luzera jauzian eta Oihana Igarrik pisu jaurti- ketan zilarrezkoa.

04 Axular-eko danborrada Londresen: Oihana eta Eider Amonarraiz, Mila Ugarteburu, Alberto Luis eta David Franco herritarrek parte hartu zuten ekainaren 4ko "Regent Street, a taste of Spain" izeneko jaialdi erraldoian.

Donostiako Axular ikastolako danborrada osatzen duten ikasle ohi, hauen guraso eta irakasleek Londresen ekainaren 4an larunba-tean burutu zen. Donostiako danbor soinuak eraman zituzten 68 kideko taldean bost ziren lasarteoriatarak, David Franco eta familia bereko lau herritar, Oihana Amonarraiz, ama, ahizpa eta senarra.

Londresen turismoa promozionatzeko eta bultzatzeko egiten den jaialdi erraldoia da "Regent Street, a taste of Spain". Seigarren jaialdia izan da aurtengoa eta orain arte euskal trikitilari eta dantzariak joan baziren ere, aurtengo danborrada oso bat gonbidatu dute, zerbait bere-zia eskaini nahi zutelako. •



2012 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!

MADD MEIER
KARROZERIAK

ORDEZKO IBILGAILUA

Bankada elektronikoa - Kabina labeduna
Informatizatutako kolorimetria

Certified First KIDEA

Oria etorbidea 10 - Brunet pol., 20-21
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
Tel.: 943 360 617 - Faxa: 943 366 038
maddmsl@iservicesmail.com

Aseguru konpainia guztiekin baimendutako zerbitzua



2012 zoriontsua opa dizuegu!



Kale Nagusia 51 • Tel.: 943 370549 • LASARTE-ORIA

- Makillajea
- Manikura
- Pedikura
- Solariuma
- Laser bidezko Depilazioa *berria*
- Depilazio elektrikoa
- Aurpegiko tratamenduak
- Masajea *berria*
- Gel-eko azazkalak





Somotoko ikerketa batzordea itxi egin zuten PSOE eta PPk

06 PSE eta PPk salaketetatik libre utzi zuten Ana Urchueguia, ekainean bertan osatu behar zen Udal berriari itxaron gabe. Somotora bideratutako diru-laguntzen ikerketari buruzko erabakia hartzeko goizeko 9:00etan egin zen udal batzar berezian, PSE eta PPk ikerketa itxia erabaki zuten: alkate ohiak irregulartasunak egin zituela aitortu, baina delitirik ez leporatzea erabaki zuten. Udaleko eta ikerketa batzordeko idazkari Xabier Ejeak egindako txostenaren arabera, Ana Urchueguia alkate ohiaren jokabidean ez zen delitirik izan, legeak agintzen duenaren aurkako jokaerak egon zirela aitortu arren. Lasarte-Oriako udalbatzarrek ondorioen txosten hori onartu zuten PSE-EE eta PP alderdien bozkek. Horrela kooperaziorako diru laguntzan Ana Urchueguiaren kudeaketan delitirik ez dagoela onartu eta ondorioz, diru laguntzen ikerketarekin ez jarraitzea erabaki zen. Oposizioko alderdiek, kontrakoa uste dute, eta ez ziren ados ikerketa uztearekin. Udalbatzarra amaitu ondoren, aretoa utzi eta Ezker abertzalea, EAJ, LOHP, H1! eta EB, zinegotziek prentsurrekoa eman zuten PP eta PSE-EEek ikerketa batzordea lurperatu izana salatzeko.

06 Beñat Telleria Gorostidi Harriarekin: Gorostidi Harria altxatzen ausartu zen Aduna, Beñat Telleria harrijasotzaile sendian txikiena.

Ikusleak harrituta utzi zituen hamabost urterekin 137 kiloko harri irregularra sei aldiz jaso eta gero.

10 Loquillo abeslariaren diamantezko diskoa Mendi Kafe Rock-en ikusgai: Jose Maria Sanz, Loquillo abeslariak ekainaren 7an diamantezko diskoa jaso zuen Madrilgo Hard Rock Cafe-n, bere ibilbide musika-lean milioi bat disko baino gehiago salzteagatik. Disko hori Lasarte-Oriako Mendi Kafe Rock-en, Loquillo y Trogloditas taldearen egoitza ofizialean, jartzea erabaki du abeslariak.



12 Giro ederra Dantzari Txiki egunean: XXIII. Dantzari txiki egunean Faltzes-ko Makaia, Zangotzako Rocamador D.T. eta Oreretako Ereintza Dantza taldeak etorri ziren Lasarte-Oriara. Landaberri eta Kukuka taldekoekin, Andatza plazan goizeko 10:30ean bildu eta kalejiran ibili ziren goiz partean ibilbide ezberdinetan. Bazkalostean, 17:00etan agurra dantztatu zuten denek eta gero talde bakoitzak berak aukeratutako dantzak.



16 Chourraut bosgarren Europako txapelketan: La Seu d'Urgellen ekainaren 9tik 12ra jokatu zen Slalomeko Europako txapelketan bosgarren izan zen bakarka Maialen Chourraut palista lasarte-oriatarra K-1 mailan.

Finalerdian bigarren denborarik onena egin zuen. Taldeka finaletik kanpo geratu ziren. Hilaren 25ean hamargarren aldiz senior mailako Espainiako Slalom txapelketa eskuratu zuen.

17 Euskal Astea Sasoeta-Zumaburu ikastetxean: Larunbatean ikasturte amaierako jaialdian denetarik izan zuten, jolasak, dantzak, ikuskizunak, puzgarriak, karaokea, hamaiketako... Sasoetako eraikinean eta astelehenetik aurrera

Euskal Astea egin zuten: Txangoak egin zituzten toki ezberdinetara, besteak beste, tren txikiko ibilbidera, Santa Barbarara, mini golfera, Gamarrara,... baita bertsoak eta ipuinak ere.

18 Urtzi Telleria harri jasotzailearen marka berria: 163 kiloko harri errektangeluar zaharrarekin marka pertsonal berria jarri zuen Aian Urtzi Tel Ieriak. Bost minututan bost altxaldi egin zizkion, 77 kg-ko bere pisuaren bikoitza duen eta eskulekuak aldamenean dituen harriari.

Aurretik, santaixabeletan 131 kiloko harri irregularrarekin Usurbilen egin zen lehiaketa irabazi zuen Urtzi Telleriak, hamaika altxaldi egin eta gero.

Egun horretan gainera, Beñatek 100 kiloko harria hamabi aldiz jaso zuen.

18 Udaberentzat squasheko txapela: Lasarte-Oriako XXIII. Squash Txapelketako finalean Alberto Udabe usurbildarrak irabazi zion Agustín Erkizia oriotarrari. Hirugarren finala zuten jarraian kiroldegian bainu aurten txapela eskuz aldatu da. Iaz Erkizia irabazi bazuen ere, aurtengoan txapela Alberto Udabek eraman du.

18 XXII. Igeriketa Lasarte Saria: Lasarte-Oriako kiroldegiko igerilekuan Buruntzaldea Igeriketa Kirol taldeak antolatuta XXII. Lasarte Saria jokatu zen.

Buruntzaldea taldeko kideek Hernani KE eta Nafarroako Lagunak-Barañain taldeko igerilariak izan zituzten aurrez aurre proba desberdinetan.

Lehiaketan Buruntzaldea IKT taldeko herriko igerilariak bikain ibili ziren, beraien kategorian lehenengo postua lortu zuen Haitz Mixelena, Mikel Arribillaga, Ainara Garcia, Naroa Goikoe-txea, Iñigo Ibarburu eta Mikel Esnalek bakarka. Taldeka ere, IKTkoek lehenengo postua lortu zuten 10x50 estilo libre mistoan.

Jarraian, hiru taldeak giro onean Aginaga Sagardotegian bildu ziren eta bazkalondoan, sari banaketa egin zen.

Jalguneko lagunok urteberri on opa dizuegu!

Jalgune



Elkartea



Bekokale bidea | 2. solairua • LASARTE-ORIA

Pablo Barrio alkate, Bildu EAJ eta Plataformaren babesarekin

11 Bilduko Pablo Barrio izendatu zuten Lasarte-Oriako alkate berria, eta PSE-EEn 25 urteko nagusitasunaren ondoren aldaketaren bidea ireki zen alkatetzan. Ekainaren 11n alkate abertzalea izendatu zuten aldeko 9 boturekin. Izan zen aurreko egunetan zurrumurruak, eta goizeko 9:00etako udalbatzarrean ziurtatu egin ziren. LOHPk eta EAJk, bina botu eman zioten bakoitzak eta Pablo Barrio Bildu alderdiko alkategaia, Lasarte-Oriako alkate bihurtu zen.

Idazkariak izendapen ekitaldiari hasiera eman eta bi hautagai ziren, Jesus Maria Zaballos alkate ohia PSE alderditik eta Pablo Barrio Bildutik. Esan bezala, bozketan honek eskuratu zuen gehiengo 9 boturekin. Une horretan batzar aretoan txalo zaparrada eta poza zabaldu ziren, negar malko batzuk ere isuri ziren, besarkadak nonahi, idazkariak botu zenbaketarekin segi behar zela esan arte, baina jada jakina zen Lasarte-Oriako alkatetzan aldaketa izango zela. PSE-EEK 8 bozka eskuratu zituen, PSE-EEKo alderdikideenak gehi PPKo zinegotziarena.



18 Gimnasia eritmitiko taldearen erakustaldi polita: Kurtsoari amaiera emateko LOKEko gimnasia eritmitikoko ikasleek erakustaldia egin zuten kiroldegian eta ikuskizun ederra eskaini zioten bertaratu zirenei.

Ekainaren 11n Durangon Euskal Ligako jardunaldian, Aizpea Arroyok bi domina eskuratu zituen bigarren izan zen zutairekin eta hirugarren sokarekin.



23 San Joan Sua Okendon: San Joan bezperan Pablo Barrio alkateak piztu zuen Okendo plaza berrian sua. Lehenago, Erketz EDT-ko lagunek San Joan zortzikoa dantzatu zuten udaletxe parean eta Udal ordezkari berriarekin batera, Okendo plazarako bidea egin zuten herriko dantzariak.

Era berean, San Joan sua erre zen bitartean, kalejira, fandangoa eta arinarina dantzatu ziren honen inguruan.



24 Sari banaketa: Biyak Bat elkarteak mahai eta mugimendu jokoen txapelketetako sariak banatu zituzten erretiratu elkarteak zuzendaritzak, Pablo Barrio alkateak eta Tasio Arrizabalaga zinegotziak. Ostean, txiste eta olerki saio aparta entzun zuten.

24 Gironako Comet Blue garaile maketa lehiaketan: Lasarte-Oriako IV. Maketa lehiaketako irabazleak Gironako Comet Blue taldea eta Lasarte-Oriako Flashback izan ziren. Hauek, Sanpedrotan jaso zuten saria hilaren 30ean Okendon Reincidentes-en kontzertuan.



25 Elisabet Arroyo Espainiako txapeldun: Ekainaren 25ean Donostiako Etxadi eta Mons kiroldegietan Espainiako Pertsona Gorren III. Padel Txapelketa jokatu zen. Honetan, Gipuzkoako Gorren kirol elkarteak dauden Lasarte-Oriako Elisabet Arroyo Usabiaga eta Zarauzko Miriam Argote jokalariek izan ziren garaile.

26 Erketz kultur etxean: San Pedro jaietako emanaldi berezian 80 lagun inguru igo ziren kultur etxeko oholtzara ordu eta erdian Erketz eta Kukukakoak eta taldekide ohiak.

Ikusleei eskainitako agurrarekin hasi eta dantza ugari eskaini zituzten haur eta helduek: txakoli, xuletino, zapatai, Arratiako jotak, Lapurdiko inauteria... Musikoek ere pieza eder bat eskaini zuten.

29 Goiegi berriaren Zilarrezko Ezteiak: San Pedrotan Goiegi jatetxea eraberritu zuteneko 25 urte bete ziren. 1610. urteko baserria bada ere, Juan Mari Arsuagak eta Joxepa Anttoni Lizasok hartu zutenean egin zen ezaguna. Bi hauek egungo jabeen aitaren aldeko aiton-amonak ziren. Goiegi jatetxean lan egingo zuten belaunaldiak euren emango zieten paso. Asko aldatu da lau mende hauetan Goiegi baserria. 1965.ean sute batek baserriko zati bat, dolarea eta jangela zegoen tokia suntsitu zituen eta ez zen 1986 arte berriro zati hori berreraiki. Urte honetan egungo itxura hartu eta ezagutzen dugun horretan bilakatu zen.



JATEN DUGUNA GARA!

Leire

Arrandegia

KALITATEA PREZIO JUSTUAN

2012 zoriontsua opa dizuegu urteberri on!

Eskerrik asko guregan jarritako konfidantzagatik

Nagusia 35 • Lasarte-Oria • Tel.:943 371946

Mikeletes Pasealekua 8 behe 6 • (Antiguo) Donosti • Tel.:943 217698

ORDUTEGIA

Asteartetik larunbatera 08:00etatik 14:00etara

Astearte eta ostiralean arratsalde 17:00etatik 19:30era

San Pedro Jaiak

28 Hasi dira Sorgin Jaiak: Arratsaldeko 18:00etan txupina bota eta aurre hartu zuten Sorgin Jaiak. Pregoia Sorgin Dantzako kideek irakurri zuten eta ondoren bai oholta gainean, baita ikusleek ere sorgin dantza dantzatu zuten. Errausketaren aurkako flash mob-a dantzatu, triki poteoan parte hartu eta lehen eguneko gauean herriko taldeen kontzertua izan zen, Arramazka, Makulu Ken eta Trikihots taldeekin.

29 Hasi San Pedroak: Goizeko 11:00etan bota zuten txupina udaletxe berriko balkoitik. Jende ugari bildu zen Okendo plaza bertuan txupina ikusteko eta ordutik larunbatera bitartean ez zen aspertzeko betarik izan.



Garcia
AUTOBUSAK

Nafarroa etorbidea 32-2.A
(Leku Eder etxea)
Tel.: 943 372737
20800 ZARAUTZ



2012 alaittua opa dizuegu !

- Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu proposak.
- Bestelako zerbitzuak.



Uztaila

Soldata jaitsiz hasi ziren lanean Bilduko alkate eta zinegotziak

12 Legealdiko lehenengo udalbatzarretik nabaritu zen aldaketa: Funtzionatze-ko modua finkatu zen Pablo Barrio alkate berriak zuzendu zuen lehen batzarrean. Aipagarria da, alkate eta liberatutako zinegotziek gutxiago kobratzea eta konfiantzako kargu gehienak kentzea erabaki zutela, eta horrela Udalak aurreko urtean baino 246.290 euro (40 milioi pezeta) gutxiago gastatuko dituela. Batzarrean, lehenik eta behin, alkatetzak udal Gobernu batzordea Bilduko bost zinegotziek osatuko dutela jakinarazi zuen. Ondoren, Nerea Sanchez alkateorde izendatu zuen. Era berean, udalbatzarreko talde politikoei haien ordezkari eta bozeramaileen berri eman zuten eta Udaleko batzorde bakoitzeko buruaren berri ere bai.

Batzarraren ostean, Bilduko alkate eta lau zinegotziek prentsaren aurrean argitu zituzten EAJ eta Plataformarekin Gobernu osatzeko izan dituzten hartuemanak eta alkatetzan direnetik hartutako lehen erabakiak. Batetik, herritarren parte-hartzea bultzatzeko batzordea sortu dute Udalean eta herritarrek parte hartzeko aukera izan dezaten udalbatzarrek arratsaldean egitea erabaki zuten. Bestetik, aurreko alkate eta zinegotziek jasotzen zuten soldata gehiegizkoa zela iruditu eta hortik hasi ziren aurrezten. Gainera, Udalean PSEren garaian zeuden bost aholkularitatik bakarra izatera pasa ziren, hau guztia, soldatetan askoz diru gutxiago gastatzeko.



01 Ane Labakak X. Plazatik Gaztetxera bertso lehiaketako txapela jantzi zuen

Ane Labakak irabazi zuen Mutrikun 2011ko Plazatik Gaztetxera bertsolari gazteen arteko sariketa. Berarekin Lasarte-Oriako bertso eskolan dabil-tzan Beñat Iguaran amasarra eta Asier Azpiroz zubietarra ere finalera iritsi ziren, eta hauekin batera Oihana Iguaran, Aitor Salegi, Peio Ormazabal, Ander Zulaika eta Hodei Iruretagoiena arerio gogorrak izan zituen Ane Labakak Plazatik Gaztetxera txapela jantzeko Mutrikuko gaztetxean jokaturako finalean.

Gipuzkoako txapelketa prestatzeko egindako lana ageria izan zen txapelketa honetan.

02 Tolosa, Ibarburu eta Arribillaga igerilariak Euskadiko txapeldun:

Guztira 17 domina lortu zituzten Buruntzaldea IKT-ko igerilariak Euskadiko txapelketan, uztailaren 2 eta 3an Irun eta Gasteizen.

09 Chourraut hirugarren Munduko Kopako proban:

Maialen Chourraut herriko palistak Alemaniako Markleeberg herrian Munduko kopako hirugarren proban, epaileen erabaki polemikoaren ostean, brontzezko domina eskuratu zuen. Irailean Bratislavan jokatu zen Slalom Olimpiko Mundialerako prestatzen ari zen buru-belarri.



Infantil mailako gaztetxoek lortu zituzten emaitzarik onenak. Itsaso Tolosak, Iñigo Ibarburuk eta Mikel Arribillagak Euskadiko titulua eskuratu zuten. Gorengo mailakoek ere dominak lortu zituzten.

Itsaso Tolosa hernaniarrak 200 metro bizkar proban lortu zuen urrea. Baina honetaz gain, beste bi domina ere eraman zituen etxera: zilarra 100 metro bizkar proban eta brontzea 100 metro tximeletan.

Iñigo Ibarburuk 100 metro tximeletako txapeldun izateaz gain, zilarrezko domina lortu zuen 50 metro libre eta 100 metro libre probetan.

Mikel Arribillaga 50 metro bizkar proban gailendu eta hirugarren postuan bukatu zuen 100 metro bizkar proba.

Absolutuen mailari dagokionez, Naroa Goikoetxea eta Haitz Mitxelena podiumeko hirugarren postura igo ziren proba desberdinetan: Goikoe-txeak 50 metro bular proban lortu zuen brontzea eta Mitxelenak 200 metro tximeleta proban.



09 Irati Larrañaga atleta Espainiako txapelketako jauzi hirukoitzeko finalean:

LOKEko Irati Larrañaga eta Gaizka Ormazabal atletak junior mailako Espainiako txapelketan lehiatu ziren Xativan. Irati Larrañagak jauzi hirukoitzeko proban finalera iritsi eta zortzigarrena izan zen 11,41 metroko jauziarekin.

Gaizka Ormazabalek aldiz, 400 metro hesi proban egin zuen lasterka. Sailkapenean bere txandako 5. postuan amaitu zuen 57,11 segunduko markarekin.



15 Quintanak irabazi zuen Tenis Txapelketa:

Michelin Lasarte-Oriako II Tenis Txapelketako finalean Agustin Quintana azpeitiarrak irabazi zuen 6-1 eta 6-1 Iñaki Artanoren aurka. Hirugarren postua Santi Lorenzok bereganatu zuen eta laugarrena Mikel Espinallek.

15 Iñigo Sevillano atletak brontzezko domina lortu du Euskadiko txapelketan:

Atletismoko Euskadiko txapelketan Basaurin Iñigo Sevillanok brontzezko domina eskuratu zuen 110 m. hesiak proban eta Jose Ramon Latorrek laugarren amaitu zuen 100 metroko lasterketako finalean.

16 Karmengo amaren omenez hainbat ospakizun Orián:

Oria auzoko bizilagunek haien zaindaria Karmengo Amaren eguna ospatu zuten. Trikitilariak grotu zuten auzoa goizeko 10:00etatik eta mezan Pablo Barrio alkatea, Jesus Zaballos alkate ohia eta hainbat zinegotzi izan ziren.



MEKANIKAKO ZERBITZU OROKORRA

2012 zoriontsua opa dizuegu!

Jaizkibel plaza 2, behea • Tel.: 943 370203 • LASARTE-ORIA



SUGATE SUKALDEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

2012 zoriontsua opa dizuegu!

Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net







20 Pilar Soberonen lana Arte Santander2011 erakustaldian: Pilar Soberon herriko artistaren Oro-grafik lana aurkeztu eta erakutsi zuen Donostiako Arteko galeriak Arte Santander2011 erakustaldian jarri zuen standean.

Bertan erakutsiko zuen besteak beste "Disseminations" proiektua.

21 Ostalarien elkarte berria lanean hasi zen: Herriko hemeretzi ostalari elkartu ziren Lasarte-Oriako kaleko giroa biziberritzeko asmoz: Abend, Andatza, Avenida, Buenetxea, Dakara Galiza, Ilargi, Illun, Insausti, Kantoï, Lurra XXI, Mendi Kafe Rock, Naiban, Sasoeta, Santxo, Sus-trai, Trumoi, Udaberri eta Yolanda.

Inauterietan eman zuten lehen pau-suak jarraipena izan zuen Sanpedrotan eta euren helburuei eusten diete, Lasarte-Oriako ostalarien arteko batasuna eta herriko giroa bultzatzea.



26 Urdanpilleta eta Lizaso Santa Ana Pala Txapelketako garaileak: Mikel Bardaji eta Xabi Etxezarreta bikoteari 27-35 irabazita, Eneko Urdanpilleta eta Unai Lizaso nagusitu ziren Santa Ana Pala 25. Txapelketako final lehiatuan. Hirugarren Begiristain anaiak izan ziren eta laugarren Jon Pello Artetxe-Iñigo Arluziaga bikotea. Bestalde, Joxe Angel Etxebeste Santa Ana Pala Txapelketako bultzatzaileetako bat hil berria zela eta, omendu egin zuten alargunari eta semeari oroigarri bat emanez.



24 Artisauen azoka euripean: Santa Ana Artisauen XXVII. Azoka euripean egin zen Okendo plazan. Eskulangintzako 25 postu eta elikadurako beste 13 egon ziren, horietatik 5 herrikoak baina askok arratsalde erdian jaso egin zituzten ater-tzen ez zuelako. Amalur taldeko trikitila-riak alaitu zituzten herriko kaleak.



28 Alkateak jaso duen gutuna-ren salaketa: Bilduko ordezkariak prentsurrekoa eman zuten udaletxeko areto nagusian Pablo Barrio alkateari zuzendutako mehatxuak salatzeak. "Oso larria iruditzen zaigu hitzen mehatxuzko doina eta agertzen dituen helburu eta asmoak. Gure nahia oso argia da. Hauteskundeetara politika egiteko aurkeztu ginen. Pausu asko eman ditugu hemen egoteko eta ilusioz eginiko bide honen lehen eta azken urratsak ez dituzte honelako gutunek oztopatuko. Herri politika sozial, ezkertiar eta soberanista egin nahi dugu herritar ororen eskubideak bermatuz. Euskal Herri ezkertiar eta independente bat eraikitzearen bidean lan egingo dugu eta gobernuan egon edo ez hori izango da gure lana" adierazi zuten. Udal ordezkariak adierazi zuten, Gipuzkoako helbide bat ageritzen gutunean, beraien ustez faltsua, eta Madrileko zigilua.

26 Gaurkotasun handiko parodia musikala: Urtero legez, uztailaren 26an, Santa Ana eguna ospatu zuten herritarrek. Brigitarren komentuko Santa Ana eguneko meza, lucha eta Erketzen agurrarekin hasi ziren ospakizunak, eta gaueko parodia gaurkotasun handikoa izan zen, krisi egoera eta hauen erantzuleak, kalean haserre adierazi duten herritar mindu eta ozpinduak, udal ordezkari zahar eta berriak, tabakoaren legea, Udaletxe berria,... Pablo Barrio alkatea aktore lanetan aritu zen aurreko urteetan bezala. •



ANAIK

JANTZI-DENDA

ERRETIRATZEAGATIK LIKIDAZIOA!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362386

urteberri on!



Abuztua



01 Saharako haurrei harrera egin zieten: Saharako zazpi hurrek oporraldia Lasarte-Orian pasa zuten Oporrak Bakean egitasmoari esker. Abuztuaren 1ean harrera berezia egin zien Udalak eta Porrotx pailazoak ere hartu zuen parte ekitaldian. Hiru hegaldietan iritsi ziren zazpi haurrak, ekainaren amaieran lehenengo hirurak, uztailako lehenengo astean beste bi eta hirugarrenean azken biak. Herrian egon ziren bitartean mediku azterketak egin zitzaizkien.



08 Raul Ramos jockeya bikain bere "etxean": Lasarte-Oriako zalditegi eta prestatzaileek zenbait sari lortu zituzten hipodromoko zaldi lasterketen udako denboraldian eta batez ere Raul Ramos herritarra nabarmendu zen, Gran Casino Nervion saria irabazi baitzuen Washita zaldiarekin. Normalean Mijasko zaldi lasterketan parte hartzen du; Lasarten, aldiz, gutxitan aritzen da, baina aukera bat izan zuen denboraldiko 8. jardunaldian eta irabazi egin zuen.

Bestalde, Mauri Delcher prestatzaileak hiru sari garrantzitsu irabazi zituen eta gainera bere aita omendu zuten antolatzaileek, ia 50 urtean Lasarte-Oriako hipodromoan jardun ondoren erretiratu egin zelako. Erretiroa hartu aurretik Urrezko Kopan Festeiro zaldia-ekin hirugarren postua lortu zuen Mauricio Delcherrek.



Mendigoizaleek Tossa eta Kilomanjarora eramán zuten Txintxarri

Txintxarrik oporrak hartzen ditu abuztuaren eta aurten besteak beste Italiako Alpeetan eta Keniako Kilimanjaron egon da, goiko argazkietan ikus daitekeenez. Alex Tetuan eta lagunak eramán zuten ale bat Dolomitako Tossa gailurrera eta Jesus Mari Presak aldiz Kilimanjarora, Afrikako tontorrik garaienera. Bestalde, Gonzalo Zabalak Ostadarreko bufandarekin atera zuen argazkia Kirguistan-en 7.134 metroko altuera duen Lenin gailurrean.

Alex Tetuan, Txomin Otaegi, Txetxu Mertxan eta Tomas Maiz lasarteoriatarrek eramán zuten Txintxarri Dolomitako gailur dotoretara. Italiako Alpeak ezagutza joan ziren abuztuaren, esperientzia polita izan omen zen lau lagunentzat hamalau eguneko txangoa eta Tossa gailurrean ateratako argazkia ekarri zuen argitaratzeko.

Kilimanjarora, Afrikako mendi altuenera, igo zen bi lagunekin batera Jesus Mari Presa suhiltzaile, pilotari eta mendizalea. Machame bidea, 5.895 metroko tontorrera iristeko ibilbide luzeana hautatu zuen, aldi berean, mendizaleentzat politena delako. Guztira, zazpi eguneko ibilbidea izan zen, bost egun igotzeko eta beste bi jaisteko. Mendira igo ostean, gainontzeko egunak Afrikako hainbat txoko ezagutzen eman zituzten familiarekin batera. Tartean safari bat egin eta Masai tribua ezagutzeko aukera izan zuten.

Gonzalo Zabala 7.134 metroko Lenin gailurrean izan zen, eta Ostadar elkar- tearen bufandarekin atera zuen argazkia. Zailtasun handienak gailurrera distantzia eta altuerara ohitu beharra izan ziren. Bestela ez omen du mendiak zailtasun tek- niko handirik, beraz, erakutsi du ondo prestatua dagoela.



15 Igerilarien marka onak: Buruntzaldea taldeko igerila- riek marka onak lortu zituz- ten Valladoliden ospatu ziren Udako Espainiako Igeriketa Txapelketan.

Infantil mailan bi izan ziren txapel- ketan eskualdeko igeriketa taldearen ordezkariak, Iñigo Ibarburu lasarteoria- tarra eta Itsaso Tolosa hernaniarra. Euren marka pertsonalak hobetzea lortu zuten, Iñigo Ibarburuk 100 eta 200 metro libre zein 100 metro tximeletan. Proba honetako finalean zortzigarren bukatu zuen, 1'04"52 denborarekin.



26 Suhiltzaile eta udaltzaina New Yorkeko joko olinpi- koetan: Imanol Arteaga suhiltzaileak eta Imanol Kaskante udal- tzainak New Yorken egin zen Suhiltzai- le eta Polizien Joko Olinpikoetan parte hartu zuten.

Imanol Kaskante herriko udaltzai- nak bi domina ekarri zituen: Ergome- troan bakarkako 2000 metrokoan, zilarrezko dominarekin konformatu behar izan zuen suediar bat aurretik izan zuelako eta binakako 1000 metro- ko proba mistoan -arraunlari bakoitzak 500 metro osatuz_ urrezko domina eskuratu zuen Phoenix-eko (AEB) neska baten laguntzaz: "Ez genuen elkar eza- gutzen bertara joan aurretik, baina batera jarri gintuzten ergometroan ari- tzeke, eta lehen postua erdietsi genuen", dio Kaskantek.

Arteaga, triatloian eta itsasoan igeri- ketan parte hartzera joan zen, baina Irene urakana zela eta, triatloieko proba bertan behera geratu zen, eta erlojuaren kontrako txirindularitza proban aritu zen. Izan ere bere bizikle- ta eramán zuen New Yorkeraino eta kolpea jaso zuen triatloi proba bertan behera geratzen.

CASA EXTREMADURA

ZORIONAK ETA URTEBERRI ON !

ADARRA 4 · TEL.: 943372375 20160 · LASARTE-ORIA





Maialen Chorraut munduko hirugarren

09 Lasarte-Oriako piraguistak brontzezko domina eskuratu zuen Bratislavan Munduko Txapelketan eta 2012ko Londresko olimpiar jokoetarako txartela ere erdietsi zuen emaitza honi esker.

Emakumezkoen K1 mailan aritu zen hilaren 8tik 11ra bitartean Bratislavan ospatutako txapelketan. Sailkatze proba eguneko eguraldi txarrari aurre eginez eta izandako zailtasunak gaindituz, finalerako sailkatzea lortu eta brontzezko domina eskuratu zuen. Kuhnle austriarra eta Dukatova eslovakiarra soilik izan zituen aurretik.



01 Garagardo Azoka Xirimirin irailaren 1, 2, 3 eta 4an: Pablo Barrio alkateak, Ane Labaka bertsolariak eta trikitilariak inauguratu zuten irailan 1ean Xirimiri elkarte-ko Garagardo azoka. Zortzi iturri jarri ziren eta zortzi garagardo ezberdin dastatzeko aukera eskaini, normalak eta beltzak. Bestalde, ohiturari eutsiz, ukondo, saltxitxa, oilasko hegala eta patata biziak jateko aukera izan zen. Feria irekitzeko ohorea Pablo Barrio alkateari ematean ez omen dute elkartearen zalantzarik izan.



02 Jon Roncero Udal langile Villa Mirentxun: Udalaren eta Gureak enpresaren arteko hitzarmenari esker Down Syndrome duen gaztea gizarte zerbitzuen bulegoan hasi zen lanean. Guztira hamahiru hilabetetarako kontratatu dute lasarteoriatarra. Pablo Barrio alkateak pertsona hauek gizarte-eratzeari garrantzia azpimarratu zuen irailaren 2an, Gureak elkartearen eta Udalaren arteko hitzarmena sinatu eta gero.

02 Rugby Eskolak denboraldi berri hasi zuen irailarekin batera. Lehenak infantil mailakoak izan ziren ostiralean irailaren 2an arratsaldean. Benjamin eta alebin mailakoek, berriz, igandean irailaren 4an hasi ziren goizeko 9:00etan. Rugby eskolak dohainik dira 8-14 urte bitarteko neska mutilentzat, kiroldegiko bazkide izanda.

07 Adarra kaleko etxebizitza babestuen zozketa: 1.030 eskatzailek parte hartu zuen Adarra kaleko babestutako ehun etxebizitzaren zozketan. Bi taldetan banatuta egin zen zozketa, 11:00etan 35 urtetik beherakoentzat zeuden 63 etxeak eta 12:30ean zozt egin ziren gainontzekoak; mugikortasun urritasuna duten pertsona zein familiei zegozkien hiru etxeak, 35 urtetik beherakoak izan eta 4-5 kideko familientzako bi etxeak, 35 urtetik gorakoak izan eta 1-2 kideentzako 23 etxeak eta azkenik, 35 urtetik gorako 3-4 kideentzako zazpi etxeak.



10 Iñigo Ibarburu bigarren Donostiako Kontxako igeriketa zeharkaldian: Buruntzaldea IKT taldeko hamar igerilarik hartu zuen parte irailaren 10ean Kontxako Badiako LXVIII. Igeriketa Zeharkaldian. Gainera kirolari gehienentzat lehen esperientzia izan zen ur irekietan. Hala ere esperientzia izan zen eta Iñigo Ibarburu lasarteoriatarra bigarren izan zen, infantil mailan 750 metroko proban, 8' 31" denborarekin.

Nagusien artean, 2.200 metrotan IKT taldean Haitz Mitxelena nabarmendu zen, seigarren izan baitzen, 28'26" denborarekin.

11 Lasarte-Oria Bizirik eta errausketaren aurkako beste plataformek, Donostiako estropaden bigarren igandean goizeko 11:30etan giza kate bat osatu zuten kontxa hondartzan errausketaren aurka eta hondakinak kudeatzeko beste modu baten alde daudela aldarrikatuz. Zubietako erraustegiaren eraikuntza sei urtez atzeratzeko eskatu dute.

17 Buruntz-Azpi elkartearen 50 urteen ospakizuna: Gogoangarria izan zen elkartearen egin zen egun osoko festa. Pablo Barrio alkatea, zinegotziak eta herriko elkarte eta kultur talde gehienetako ordezkariak izan ziren bazkarian. Ondoren, oroirgarriak eta lehiaketetako sariak banatu ziren. Trikitilarien laguntzaz, Buruntz-Azpi elkartearen ereserkia kantatu zuen Joxe Belartietak. Gauean berriz, rock kontzertua izan zen elkartearen.



Kiribil
HAUR JANTZIAK

**Gabonetako eskaintzak
% 20ko
beherapena**

Geltoki kalea 17 • Tel.: 943 045949 • 20160 Lasarte-Oria

SALAZAR PROFESIONAL
ILEA-APAINTEZKO ETA EDERGINTZAKO PRODUKTUAK

2012 zoriontsua opa dizuegu!

Geltoki Kalea 15
Tel.: 943 360211
salazar@salazarpro.net
www.salazarpro.net

merkalitatea



Kukukak 10 urte beteko ditu, eta ospakizun ikasturtea hasi zuen

29 Kukuka, Lasarte-Oriako Antzerki eta Dantza eskolak irailaren 29an aurkeztu zuen 10. ikasturtea Kultur Etxean, modu berezi batean, gainera. Eskolako 19 irakasleetako gehienek koreografia bat dantzatu zuten eta gero bi bideo eskaini zituzten: Irrien Lagunak Klubarentzat Villa Mirentxun grabatutako Lip-Dub-a bata eta Eskolaren hamar urtetako ibilbidearen inguruan Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek egindako muntaia bestea. Azkenik, Kukukaren abestia dantzatu zuten emanaldian izan zirenek. Kukuka Eskolan 700 lagunetik gora matrikulatu dira 2011 eta 2012 ikasturterako, 57 talde dira eta 19 irakasle, beraz, duela 10 urte Zabalera auzoan lau talderekin hasi zen proiektua Lasarte-Orian sustraitua dela argi dago.

Kukukako Joxe Mari Agirretxek, hiru puntu nabarmendu zituen norberak ikasten duena, talde izaera eta herri mailan euskaraz eta alaitasunez Kukuka kultur taldeak egiten duen lana. 10 urte betetzen dutela eta ekainean festa handi bat egingo dute.



13 ETaren indarkeriaren aurka-ko mozioa atzera bota zen: Iraileko ohiko udal batzarraren atzera bota zen PP eta PSE-EE alderdiek batera "ETaren indarkeria" eta biktimei buruz aurkeztutako mozioa, eta, Bildu, EAJ eta LOHPak ordezko proposamena onartu zen.



15 Biyak Bat elkartearen irteerak Gasteiz eta Portugalera: Biyak Bat zaharren biltokiak bi irteera antolatuta zituen iraila eta urriaren 15ean Gasteizera eta urriaren 9tik 15era Portugalera. Egun guztirako irteera izan zen Gasteizkoa, goizeko 8:30etan Biyak Bat elkartetik abiatu, Estibaliz-ko Ama Birjina, Gasteizko patroia, bisitatu, eta ondoren Gasteizko hiria autobusez goizean gidari baten laguntzarekin eta euren kasa arratsaldez.

Bestalde, urriaren 9tik 15era Portugalera joan ziren Cascais Lisboa hiriburutik gertu dagoen hirira.

16 Erdi Aroko azoka, euritan blai: Okendo inguruan egin zen 16tik 18ra Erdi Aroko azoka eta eguraldi txarra egin bazuen ere herritar sko inguratu ziren bertara. Ostiral arratsaldean ekin zitzaion azokari, pregoilariaren hizketaldiarekin. Giro ona zen nagusi eta erori ziren euri tanta apurrek ez zuten festa hondatzerik izan.

Larunbata eta igandean ere jende asko ibili zen hainbat ekitaldi bertan behera geratu baziren ere eguraldi txarra zela kausa.

23 Bizikleta festa: Bizikletek hartu zuten irailaren 23an protagonismoa Lasarte-Orian. Udalak Europa mailako Mugikortasun Iraunkorraren astearekin bat eginez bi ibilbide prestatu eta Okendo plazan hainbat jolas antolatu zituen eta. Buruntzapzi txirindularitza eskolako kideen 17:00etatik hasi eta 19:00ak bitartean bizikletan egiteko zinta-jolasak, ginkanak eta zirkuituak egongo dira Okendo plazan.

25 Aukera ugari Stock Azokan: Lasarte-Oriako IV. Stock Azoka burutu zen irailaren 24 eta 25ean Loidi Barrengo frontoian eta hainbat produktu modu onean eskuratzeko aukera izan zuten lasarte-riatarrek. Aterpea elkarteko antolatzaileak pozik ziren ekitaldiak izan zuten erantzunarekin, bi egunetan 1.500 lagun inguruk bisitatu zuela esan zuten. Guztira hemezortzi postu jarri zituzten, horietatik bost herrikoak: Bazar Abreu, Alda bitxi-denda, Kynay, Ttipi-Ttapa haurren moda eta El Ajuar del Bebé umeen arropa. Gainontzekoak Euskal Herriko leku desberdinetatik etorri takaok.

16 Rafa Diez kartzelara: Ostiralean 'Bateragune auziko' erabakia jakin eta gero, Madrilera joan zen astelehen goizean Rafa Diez lasarte-oriatarra espetxeratuko zuten ala ordura arte bezala apiriletik behin behinean baldintzapean libre jarraituko ote zuten jakiteko. Auzitegi Nazionalako epaileak, fiskalaren eskaera onartuz, hamar urteko kartzela zigorra agindu zuen Diezentzat, ihesik egingo ez zuelaesan zion arren.

Kartzelara bidali aurretik epaileari esan zion, Euskal Herriaren alde, bakearen alde eta irtenbide politikoen alde lanean jarraituko duela. Eguerdian Michelin enpresaren atarian elkartu ziren langile eta ordezkariek "Epai politikorik ez, eskubide guztiak guztiontzat" lemapean. Izan ere, Rafa Diez enpresa honetan murgildu zen sindikalizintzan.



25 Milaka irri Usurbildik Etiopiar: Irrien Lagunak Klubaren jaialdia burutu zuten irailaren 25ean Usurbilen. Urtero, urtero elkarre bat gonbidatuko dute jaialdian, aurtien Etiopia Utopia fundazioa eta ekitaldiko irabazi guztiak eurentzat izan ziren. Puzgarriak, haurrentzako jolasak, txotxongiloak, buruhandiak, tailerrak... denetarik egon zen Irrien Lagunak klubaren lehenengo jaialdian.



30 Kukairen dantzak Okendon: Sei dantzarirekin batera aritu zen DZ Zigor Lanpre Lasarte-Oriako musika jartzailea Okendon iraileko azken ostiralean.

Denetarik herriarrek, haur, gazte eta helduek gozatu zuten Kukairen "Karrikan" ikuskizunarekin: lurrean egin zuten dantza, plazaren zorua oholztu bihurtu zuten Kukai dantza taldeko partaideek.

autobusen
TST
ferbitzua

tsst

Eguberri on!

Gure herriko autobusekin,
Ospitaleetara
ere bai!

Azkarra, segurua eta eroso

Tel.: 943 361740 • www.tsst.info





Zahartzaroaren omenaldi arrakastatsua

02 Urriaren 1a, Pertsona Adinduen Nazioarteko eguna zela eta, Lasarte-Oriako Udaleko Ongizatea, Inmigrazioa, Kooperazioa, Emakumea eta Enplegu arloak zahartzaroaren omenaldi eguna antolatu zuen aurten ere. Besteak beste aurten urrezko ezteiak ospatu zituzten 19 bikote omendu zituzten. San Pedro parrokian meza nagusia egin zuten kalejira, trikitixa eta dantzariekin. Biyak-Bat erretiratuen elkarte-ko abesbatzak emanaldia eskaini zuen kultur etxean eta azkenik, 580 pertsona adindu bildu zen Micheligo pilotalekuan bazkaltzeko.

01 Lasarte-Oriako VIII. Akordeoi jaialdia egin zen Kultur Etxean: Klezmática Trio bibolin, akordeoi eta kontrabaxuz osatutako hirukoteak denetarikoinuak eskaini zituen. Ostean, Jean-Louis Noton bakarlari frantziarraren emanaldia eta Zero Sette herriko taldeak eman zion bukaera jaialdiari.

02 Bolotan, Santi eta Martin-en omenez VIII. bolo txapelketa jokatu zen Michelingo bolatokian. 25 bolarik parte hartu zuten txapelketan hiru kategoriatan. Probintzia mailakoan, Juan Goenaga donostiarrak izan zen garaile; herri mailakoan, Joxian Lasa izan zen lehen sailkatua eta Emakumezkoen Txaro Galan izan zen onena.

02 Aukera ugari XIV. Stock Azokan: Aterpeak urtero antolatzen duen Stock Azokan, aurten, Loidi-Barrengo frontoian, guztira hemezortzi postu jarri ziren.

03 Udal gobernu berriaren egokitzeko "moteltasuna" salatu zuen PSEk: Jesus Zaballoz bozeramale sozialistak ezjakintasunaleporatu zion udal gobernuari izan ere, bere ustez aurreko urtetan alderdi sozialistak egindako lan guztia ez zuen behar bezala aztertu. Gainera egokitzeko denbora bat behar izatea ulergarritzat zuen sozialistak baina dagoeneko gehiegizkoa zela salatu zuen "Udaletxea gelditzen ez den tren bat da eta ezin da hainbeste denbora utzi hau behar bezala gidatu gabe."

08 Mendi Duatloia ikusgarria Zubietan: Kirola eta natura uztartuz, ikuskizun polita eskaini zuten parte hartu zuten 106 lasterkariak. Euskal Herriko mendi duatloia txapelketa zegoen jokoen eta ligarako hirugarren proba puntuagarria zen. Gizonezkoetan, Jon Erguin izan zen garaile, 1:12:37ko denborarekin eta emakumezkoetan, Amaia Liquin 1:44:29ko kronoarekin.

11 Lasarte-Oriako Udala, bosgarren edukiontziaaren alde: Hondakinen bilketa izan zen udal batzarraren gai nagusia. Aurreko legealdian atez ateko bilketa probatearen alde hartutako erabakia bertan behera utzi eta bosgarren edukiontzia probatzeko eskatu zuen proposamena onartu zen, PSE-EE, PP eta EAJren aldeko botoekin. Bestalde, udalbatzarrean jakin zenez, PSE-EE utzi zuen Marisa Zubiri zinegotziak.

08 Otamendi Gpuntu final laurdenean: Andoni Otamendi Lasarte-Oriako bertsolariak Gpuntu, Gipuzkoako Bertsolarien Txapelketako final laurdene-ko txartela eskuratu zuen Kultur Etxean egin zen kanporaketan saio borobila osatu eta gero. Uxue Alberdiren atzetik bigarren izan zen herriko bertsolaria.



12 Herri eskola: Hispanitatearen eguna ospatzeari uko egin zioten Lasarte-Oriako Ikasle Abertzaleek eta Herri eskola antolatu zuten Landaberri BHI ikastetxean.

13 Parte hartzeari zubiak eraikitzen: Hainbat arlotako elkar-teak, alderdiak eta herritarrak bildu ziren kultur etxeko kafetegian Udal berriaren aurkezpenean. Lasarte-Oriako Udalak herritar eta Udalaren arteko harremana landu eta hobetu nahi zuela azaldu zuen alkateak. Lehenengo bileran esan zuten, helburua herriko talde eta eragileekin elkar lanerako zubiak ireki eta partehartzea zabaltzea dela.

15 Emozioekin dantzatzan: Maisuki uztartu zituen Ion Munduateren konpainiak gizakion emozioak, argi-joko bikainez eta pianojole baten nota goxoez giro-tako emanaldian.



16 Asteburu bizia Semblante Andaluz elkarteak: Hainbat ekitaldi ezberdin burutu ziren ostiraletik igandera bitartean Semblante Andaluzen. Egitarau zabala prestatu zuten elkarteak eta Golf plazan: dantzaldiak, kantuak, bazkaria, saskibaloia partida, "sevillanaka", buruhaundiak...

16 Buruntzaldeko ibilbideen egun eguzkitsua: Laugarren urtez Buruntzaldeko lau udalek ibilbideen eguna antolatu zuten. Proiektuari esker edozein herritarrek ezagutu dezake gure eskualdea, markatutako bost ibilbideren bitartez. Giro bikaina izan zen aurtengo edizioan eta asko izan ziren ibilbide hauek egitera animatu ziren herritarrak.





zero sette

Trikitixa eta esku-soinuetan aukera zabala:
Berriak, 2. eskukoak eta alokairuan.

Oria etorbidea 10, 303. bulegoa • 20160 Lasarte-Oria • Gipuzkoa
Tel.: 943 372817 • www.tirikitrauki.com • tirikitrauki@tirikitrauki.com



oihalak

urteberri on!






XVI. Lasarte-Oria Bai! herri krosa markak hausten

30 Inoiz baino parte hartzaile gehiago izan ziren korrika eta beraz, XVI. Lasarte-Oria Bai! herri krosak berriro ere markak hautsi zituen. Aurten 1.508 atletek eman zuten izena eta 1.490ek amaitu zuten. Kros Txikian 600 haur baino gehiagok hartu zuen parte. Unai Arroyo eta Amaia Arbillaga izan ziren garaile, 33:16 eta 40:40 markak eginda hurrenez hurren. David Martin herritarrek ezin izan zuen iazko garaipena errepikatu, azken kilometroetan Unai Arroyo 18 urteko gazte tolosarrak aurreratu egin baitzuen. Ondorioz, lasarteoriatarrak bigarren postarekin konformatu behar izan zuten.



21 Ostadar S.K.T.-ko Erregional Gorenko futbol taldean aldatuak: Joxean Beldarrainek taldeko entrenatzaile izateari utzi eta egun talde tekniko berri eta gaztea dago kirol elkartearen lehenengo taldean lanean. Erregional Gorenko entrenatzaile berria Mikel Martija da; Asier Gorostegi eta Asier Munduate, bere laguntzaileak.

19 Lasarte-Oria Sarean web berria: Lasarte-Oria Kirola sailak web orrialdea, jarri du martxan. Udalaren orrialdearen osagarri.

Orrialdean Udaleko departamentuek edo herriko elkarteek antolatzen dituzten jai, ekitaldi edo egitarauak daude herritar guztiek, zein elkarteek ere honen berri izan dezaten. Facebook edo Twitter sare sozialetan ere badago eta sarrerak on-line kudeatu daitezke.

20 Lasarte-Oria Kirola udal euskaltegiak 25 urte bete ditu eta urteurrena ospatzeko, "Erabileraren eronka" ekitaldia antolatu zuen. Lau euskaldun berri gonbidatu zituzten, Pablo Barrio alkatea, Boris Nogales eskara zinegotzia, Iñaki Petxarroman udal euskaltegiko ikasle ohi, kazetari, idazle eta bertsolaria eta Xabier Herrera udal euskaltegiko ikasle ohi, musikari eta egun Bigarren Hezkuntzako irakaslea.

Gonbidatuek banan-banan hitza hartu eta euren euskara ikasteko prozesua azaldu zuten.

21 Labaka eta Etxeberria I. Udaregi Sariko finalean: Usurbilgo Bota Punttuba Bertso

23 Aparteko giroa jubilatuen martxan: Lasarte-Oria burutu zen Gipuzkoako jubilatuen martxa probintziala. 500 parte-hartzailetik gora izan ziren herrian barrena antolatutako zazpi kilometrotako ibilbidean. Ibilaldiaren ostean, bazkaria eta dantzaldia egin zuten Michelingo pilotalekuan. Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen elkarteak antolatu zuen, herriko Biyak Bat elkartearen eta Udalaren laguntzaz.



Eskolak bertsolari gazte eta zaharrak lehian jarri zituen lehenengo Udaregi Sarian: kanporaketa batean sei bertsolari adindu, bestean sei gaztetxo. Bakoitzetik hiruk eskuratu zuten finalerako txartela horien artean Lasarte-Oria Kirola bertsolariak.

22 Ostadar garaile kadete mailako futbol derbian: Partidu polita jokatu zuten Texas eta Ostadarrek, I. kadete mailan. Herriko bi taldeek Michelingo berdegunean neurtu zituzten indarrak eta Ostadarrek gehitu zituen jokoan zeuden hiru puntuak 2-0 emaitzarekin.

25 Alboka eta Zero Sette Lasarte-Oria izena zabaltzen: Zero Sette akordeoi orkestra Bartzelona eta Sabadell aldera joan zen Trintxerpeko Illunbe orkestrarekin batera Sabadellgo orkestraren XX. urteurren ospakizunean parte hartzeko eta Alboka abesbatzak, aldiz, Andaluzian, El Puerto de Santa Marian eskaini zuen kontzertua.

25 Egun batez arraunlari: Beltzak-Ostadar Jalai errugbi taldeko beteranoak lehen aldiz traineru batean sartu ziren. Gogoz ekin zioten herrikoek Donostiako Arraun Lagunak elkarteak botatako erronkari eta arraunean ibili ziren Kontxako badiatik Urkiolak eta Fortuna kirol elkarteek utzitako traineru eta bi yola-tan.



27 Nekazaritza eta elikadura aztergai Kultur etxeko dokumental emanaldietan: Ekuadorreko indigenen borroka, Andaluziako emakumezko nekazarien bizitza, Nikaraguako nekazarien ohitura aldaketak edota lehen eta hirugarren munduaren arteko aferak jorratu ziren

Mundubat Gobernu Kanpoko Erakundeak Kultur Etxean emandako diren dokumentalen bidez.

28 Letoniako ahots gazteen kontzertua: Europa iparraldetik etorritako 42 neskatok osatutako koroak ikuskizuna eskaini zuen kultur etxean. Tolosako kantu txapelketan parte-hartzeraz zetoze eta aprobetxatuz, geldialdixoa bat egin zuten gurean.

31 Sustrai eskenatokiaren azkena: Sustrai taberna, hainbat urtetan herriko musika taldeen eta beste hainbat kultur eta giza talderen erakusleho izan den Kale Nagusiko lokalak bere atea itxi zituen momentuz. Agur bezala, kontzertu berezia antolatu zuten Keep Digging eta Aurka taldeekin. Gau berezia izan zen, goizaldera arte luzatu zena, eta Aurkarekin batera beste rock talde batzuetako kide eta musikariek ere jo zuten, Despervicio-koek esaterako.

Hastapenetan, giro alternatibo baten baitan, hitzaldi, antzerki edota ekintza kulturalak garatzeko tokia izan zen. Gerora, ezagunagoa egin zen musika taldeek bertan ematen zituzten kontzertuengatik eta herriko taldeak ezagutzera emateko eskenatoki izanagatik.



UDABERRI
elkarte

2012 zoriontsua opa dizuegu!

Andatza plaza z/g, behea
Tel.: 943 371983
LASARTE-ORIA





Ttakunek antolatutako josten ikasteko ikastaroa euskaraz

03 Norberak bere euskal jantzi tradizionala egiteko aukera izan dezan, josten ikasteko ikastaroa antolatu zen azaroan eta abenduan Erribera kaleko Ttakunen lokal zaharrean. Iaz heldu zion gaiari Ttakunek eta aurten ere errepikatu egin du; honela, bakoitzak dakiena praktikan jartzeko modua eskaini zien euskara elkarteak. Euskal jantzi tradizionalak nolakoak diren ikasi eta gero nahi zuenak berea egiteko aukera izan zuen abenduaren 18ra arte luzatu zen ikastaroan. Josten ikasteaz gain, lagun artean euskaraz mintzatuz arratsalde pasatzeko aukera polita izan zuten parte hartzaileek.

01 Lorez jantzita hilerria: Domu Santu Egunean sekula baino dotoreago izan zen hilerria. Hildakoak oroitzeko loreak jartzeko ohitura ez da galdu eta herritar asko ibili zen hilobiak garbitu, txukundu eta lore-sortak jartzten.

04 Metal doinuak Abend-en: Heavy metal gaua izan zen Abend antzokian. Hilotz talde lasarteoriatarra eta Korumbá oreretarra izan ziren gaueko bi protagonistak. Doinu bortitz eta sakonak uztartu zituzten, euskarazko eta ingelesezko letrak tartekatuz. Kantu propioez gain, metal talde ezagunen bertsioak ere jo zituzten.

05 Bikain hasi zuten denboraldia igerilariek: Markak hobetu zituzten Buruntzaldea IKT-ko kideek neguko denboraldiko lehen txapelketan. Lasarte-Oriako udal igerilekuan parte hartze eta errendimenduko ligako lehenengo jardunaldian 20 marka pertsonal hobetu zituzten igeriketa taldeko gaztetxoek. Horietako marka bati esker, Naiara Lizasok Neguko Euskal Herriko Txapelketan parte hartzeko txartela eskura zuen.

05 DYA elkartearen 25. urterrena: Zapore gazi-gozoa izan zuten DYAk lagunek Dana-Ona jatetxean egin zuten bazkarian. Izan ere, alerta laranja ezarri zuen Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailak asteburu osorako eguraldi txarra medio. Hori dela eta, prestatuta zeuden ekitaldi guztiak atzeratu egin behar

izan zituzten. Lasarte-Orian 1986ko abenduan sortu zen taldea. Geroztik 25 urte igaro dira eta bailarako ordezkariak, Oria Beheko DYAK bere urteurrena ospatu zuen.

06 Haserretu egin zen Oria ibaia: Naturak bere indarra erakutsi zuen Euskal Herri osoan eta Lasarte-Oria ez zen salbuespena izan. Herrizaingo Sailak astebururako alerta laranja ezarria bazuen ere, igandean gertatutakoa ezustekoa izan zen. Herriko zenbait txokotan gainezka egin zuen ibaia, ura garajeetaraino iritsi zen eta zenbait etxe argindarrak gabe geratu ziren hainbat orduz.



06 Ane Labaka eta Unai Muñoa Gpuntutik kanpo: Azpeitiako Izarraitz pilotalekuan kantatu zuten Lasarte-Oriako bi bertsolariak Gpuntua, Gipuzkoako Bertsolarien Txapelketako final laurdenetan eta ez zuten final aurrekoetara pasatzerik izan. Muñoak bi puntu eta erdira izan du txartela. Andoni Otamendik Villabonan kantatu zuen urriaren 23an eta honek ere ez zuen pasatzerik izan. Dena den, pozik dira herritarrek txapelketan egindako lanarengatik.

07 Osasun Astea: Villa Mirentxun burutu zen Osasun astean hainbat gai interesgarri jorratu ziren aurtengoan, gaixotasunei nola erantzun baino, ez gaixotzeko zer egin behar den ezagutzeko. Sexu harreman osasuntsuak, elikadura eta emozioak, odol arintzeko Sintrom botika, odol emaleak eta alkoholismoa izan ziren hitzaldien gaiak.

09 Bidaiazaleen hitzordua Jalgin: Aurten bost herrialde izan zuten presentzian Ttakunek antolatutako lau diaporametan. Italiako Dolomitak Alex Tetuan, Tomas Maiz eta Txomin Otaegirekin, Maroko Alex Tetuanen azalpenekin, Tanzaniako Kilimanjaron izan zuen mintzagai Jexus Mari Presak, Mexiko Aitor Atxegarekin eta azkenik, Etiopia Maider eta Ane Galardi eta Oihan eta Izar Agirretxerekin.

10 Jokin Telleriak batera jolearen kontzertuak Berlin, Praga, Bratislava eta inguruko beste zenbait hiritan Louise Michel taldearekin. Guztira zazpi kontzertu eskaini zituzten lokal txikietan eta esperientzia oso interesgarria izan zen hain juxtu taldearen etorkizuna eta norabidea finkatzen ari diren une honetan.

Louise Michel taldean jotzen du batera Jokin Telleria lasarteoriatarrek 2010eko martxotik. Taldean, eslovakiar eta txekiar bi dira, irundar, zarauztar eta lasarteoriatarrekin batera, eta hauei esker egin zuten Alemania, Txekia eta Eslovakiara joan etorria.



12 Ane Labaka Udarregi Sarian txapelkun: Gipuzkoako bertsolari txapelketan final-laurdenetan kanpoan geratu ostean, arantza atera zuen Ane Labaka herritarrek txapela jantzi baitzuen Udarregi Sarian. Afalostean lehiatu ziren, hiru bertsolari "gazte" eta beste hiru "beterano", hauen artean Patxi Etxeberria herritarra.

20 Biba bibrazioak!: Pirritx, Porrotx eta Marimotots paila-zen "Mari Kalanbre" kantua lagun, lip dub animatua egin zuten herriko gazteek. Okendo plaza jendez bete zen herriko txikienean emanaldia ikusteko, denetarik egon baitzen gaztetxoan emanaldian, irria, dantza, kolorea, musika... Baita bibrazioak ere.

21 Lanbideren zerbitzu berriak kultur etxean: Herritarrek Lanbideren zerbitzu berriak dituzte azaroa geroztik eskuragarri Manuel Lekuona kultur etxean, astelehen eta asteazkenean 9:00etatik 14:00etara. Bertan prestazioak tramitatzeko aparteko zerbitzu guztiak egin daitezke, hau da, arreta eta orientazioan oinarritutakoak zehazki esanda; curricu-



2012 alaitzua opa dizuegu!

BURUNTZ-AZPI

Arrantza eta ehiza elkarte

BASAUNDI BAILARA 9
TEL.: 943 370685
LASARTE-ORIA



PSE-EE garaile, baina 1.638 botu gutxiago eskuratuz

20 Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan Lasarte-Orian PSE-EEren jaitziera eta Amaiurren sarrera indartsua izan ziren azpimarratzekoak. PP eta EAJk igotera txikiak izan zituzten aurreko hauteskundeetako emaitzekin alderatuz gero. Herrian PSE-EEK jaso zituen boto gehien, 3.309, baina 2008ko bozketan baino 1.638 gutxiago. Orduan ez zen ezker abertzalea aurkeztu. Azaroaren 20an estrainaldi indartsua izan zuen Amaiurrek 2.446 boto eskuratu baitzituen, Bilduk maiatzaren 22ko hauteskundeetan jasotako 2.168 bozka haiek baino ia 300 boto gehiago lortuz. PPK 1.643 eskuratu zituen eta EAJk berriz, 1.424.



luma egin eta egunean jarri, Lanbiden izena eman, auto-enplegu orientazioa jaso,... Tailerrak ere herriarren beharren arabera antolatuko zirela iragarri zuten arduradunek.

22 Santa Zeziliaren ohorez: Santa Zezilia musikariaren zaindariaren egunean herrian hainbat izan ziren eguna ospatu zuten talde eta elkarteek. Lasarte-Oriako Udal Musika eskolak antolatuta Txorimaloak soinu taldearen kontzertua ikusi ahal izan zen kultur etxeko aretoan. Euskal Herriko doinuak eta tresnak, zein atzerriko instrumentu batzuk, hala nola, kanabera, karranola eta boroak entzun zituzten emanaldira hurbildu zirenek. Ahots, dantza eta sorkuntzako doinuak ere izan ziren gaztetxo taldearen eskutik.

23 Elisabeth ileapaindegia 51 urte bete zituen: Urteurrena behar bezala ospatzeko festa egin zuten Elisabeth ileapaindegian. Bertara hurbildu ziren bezero eta lagunek Elisabeth Gonzalez eta bere amak urte hauetan egindako lana eskertu nahi izan zuten. Jabeak Donostiako zenbait lagunen babesa izan zuen ere egun honetan eta bere lana aitortzen duen oroigarriak jaso zituen.

24 "ETA EZ, ETA NO" pankarta Udaletxeko balkoitik kendu zuten: Aralarreko ordezkariak eskatuta Udalak kentzeko erabakia hartu zuen. PSE ez zen konforme azaldu erabakiarekin eta pausu gehiago eskatu zizikion ETARI.

25 Udalak alokairuko garaiekin banatzeko izena ematea ireki zuen: Udalak bere titulartasuneko 148 garaie-plaza alokatzeko plana abian jartzeko asmoa azaldu zuen. Plaza hauek Okendo Plazan, Donostia Etorbidean, eta Bekokale Bideko 12.ean kokatuak. Lasarte-Oria plaza horiek betetzeko zenbateko eskaera zegoen jakin eta zein sistemarekin kudeatuko ziren erabaki ahal izateko, Udalak behin-behinean izena emateko epea ireki zuen.



25 Ekintza ugari emakumeek jasandako indarkeriaren aurkako egunean: A25 ekimeneko gazteek arbela bat jarri zuten Okendon eta nahi zuenak bertan idatz zezakeen bere ustez emakumeen aurkako indarkeriak zer esan nahi zuen. Emakumeen Zentro Zibikokoak antzerkia eskaini zuen Manuel Lekuona kultur etxean. Aretoa bete zen "Patio de Vecinas" antzezlanaren ikusteko eta ikusleek hausnarketarako zein barre egiteko beta eduki zuten. Egunari amaiera emateko, kontzentrazioa egin zuten A25 ekimenekoek udaletxe aurrean.



26 Jalguneren jaialdi zirraragarria: Hogeigarren urteurrenaren ospakizun ekitaldien barruan hainbat ekintza burutu zituzten Jalgune elkarteak urtean zehar. Horien artean urteroko jaialdi erraldoi, alai eta koloretsua. Dantza, magia, antzerkia... ikusteko aukera izan zen kultur etxean. Besteak beste, bidelagun izan zituzten Semblante Andaluzeko kideak, Sorgin Dantzako dantzariak, joaldunak, donostiako batukada...

20 urte 11 bertute ekimenaren barruko ekintzaren bidez, ametsak bertute bihurtzea posible zela irakatsi zuten.

19 Zilarrezko judoka gazteak: LOKEko judokak zilarrezko hiru domina ekarri zituzten Gipuzkoako senior txapelketatik. Esteban Martinez, Mario Garrido eta Asier Sagasti judokak izan ziren eremuko txapelkun orde izatea lortu zutenak.

19 Igeriketa taldekoak markak hausten: Buruntzaldea Igeriketa taldeko gazteek Ligako bigarren jardunaldian 23 marka berri ezarri zituzten. Gainera, Jone Vazquezek Euskadiko Neguko Infantilen Txapelketan aritzeko 1500 m. libreterako txartela eskuratu zuen.

26 Babarrunaren kofradeak Semblanten: Semblante Andaluz-eko kideek babarrun jana antolatu zuten. 120 lagun bildu ziren Jose Ignacio Telleria eta Fernando Antón sukaldariak prestatutako babarrunak jateko. Lehen, Tolosako Babarrun Kofrade Nagusia da eta bigarrena berriz, Donostiako Gaztelubide elkarte ezaguneko sukaldaria. Bazkaldu ostean, Semblante lau kideri omenaldia egin zitzaizkien, Manuel Núñez, Ramón Moreno, Antonio Beltrán eta Antonio Almenarari hain zuzen ere.

26 Hitzak eta sariak Literatura lehiaketan: Lasarte-Oriako Udalak urteroko antolatzen duen literatura lehiaketaren sari banaketa ekitaldia egin zen kultur etxean. Haur eta gazteen XXIV. lehiaketa izan zen aurtengoa eta helduena XXV.a.

28 Kultur Kale zikloa sortzeko deialdia egin zuten Udalak eta Xpressionk-ek: Orain artean, ekintza oro Kultur etxean gauzatzen bazen ere, planteamendu berri bat egin zuten, horiek guztiak espazio irekietara edota herriko taberna eta dendatara eramateko, horrela, jendearekin harreman estuagoa lortu, eta kontzertuak, antzerkiak,... toki naturalago eta hurbilagoetan burutzeko. Lasarte-Oriako Udalak eta Xpressionk-ek taberna eta dendei dei egin zieten ekintza zirkuituan ezberdinak uztartuko dituen zirkuituan parte hartzeko. Eki-mena abenduan hasi eta 2012 urte osoan izango da martxan. •



**ARRIESKALLETA
ELKARTEA**

2012 zoriontsua opa dizuegu!

**Kale Nagusia 10 behea
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943-249305**








Mintzodromo erraldoia Okendon Euskararen Egunean

02 Euskararen Eguna egun bat aurreratu eta Mintzodromoa egin zen Okendon. Arratsaldeko 18:00tik 21:00ra bitartean euskaraz egiteko ohitura dutenak eta horren bila dabilzanak hiru gairen inguruan mintzatu ziren lau lagunek mahaietan banatuta, ordu laurdenero solaskidez eta gaiz aldatuz. Aurten udalak Euskararen Nazioarteko Eguna bultzatzea erabaki zuen eta Ttakin Kultur Elkartearekin eta euskaltegiekin batera Mintzodromoa antolatu du. Ekitaldiari hasiera eta amaiera "Mundialak Gara" kantu taldeak eta "Xumela" abesbatzak eman zioten eta tartean Mailu Arrutiren "Intxaurretik Mingainera" bakarrikzeta ikusteko aukera ere izan zen. Bestalde, Kuadrillategi eta Gazte Klubeko gazteek euskarazko mintzapraktika ariketa izan zuten eta Amalur trikitixa taldea aritu zen herriko kaleak alaitzen. Euskararen Nazioarteko Egunari buruzko adierazpen instituzionala ere onartu zuen Udaleko Bozeramaileen Batzarrak lehen aldiz.

01 "Twist" nobela aurkeztu zuen Harkaitz Canok: Euskal Herrian 80ko hamarkadan kokatu duen "Twist" nobela mardula aurkeztu zuen Harkaitz Canok Donostiako Udal Liburutegiko sotoan. Sekula idatzi duen eleberririk luzeenean, pertsonaia nagusiaren bi adiskide bahitu, torturatu, hil eta desagerrarazi egin dituzte, beraz Joxean Lasa eta Joxi Zabalen kasua dakar gogora.

"Pertsonaia fikzioak dira, istorioa fikzioa da, baina, jakina, bai pertsonaia eta bai istorioa 80ko hamarkadaren ispiluan jarriak izan dira, ispilu deformante batean" esan zuen aurkezpenean Cano lasarteoriarrak.

01 Udal langileek lan egutegia moldatzeko aukera izango dute: Udal gobernuak 2012ko egutegia moldatzeko aukera eskaini zien bere langileei. Horrela, ez ditu urriaren 12ko Pilar eguna, urriaren 25eko Euskadiren Eguna eta abenduaren 6ko Konstituzioaren eguna jai egun izendatuko, eta langileak erabakiko du egun horietan lan egin ala ez. Abenduaren 3a, Euskararen Eguna, proposatu zuen Udalak jai egun izateko.

Bilduk azpimarratu zuen udal funtzionamenduari aldetik, "egindako proposamenari esker Udala egun gehiagotan ireki ahal izango dela herritarrei zerbitzua emateko" eta ez da errepikatuko aurtengo egoera, hau da, PSE-EEK kudeatutako udal korporazioak onartutako egutegiarekin Konstituzioa eta Inmakuladaren inguruan sortutako zubiagatik Udala itxita egon zen aste osoan.

01 Adinak ez du mugarik jarzen: Gipuzkoako Jubilatuen elkarteak V. Antzerki Topaketak antolatu zituen herrian. Adinak eta muga fisikoek mugarik ez direla erakutsi zuten bi egunetako saioetan kultur etxean antzezitutako antzezlanekin.

02 Zero Setteren kontzertua Valladoliden: Zero Sette Akordeoi orkestrak Valladolid hiriko IX. Akordeoi jardunaldietan parte hartu zuen. Elias Goikourriak zuzendutako taldeak Händel, Bruno Ruch, Geronimo Gimenez, Gershwin, Willi Münch, Draeger, Cebrian Ruiz, Sibelius eta Chapi musikarien lanak eskaini zituen.

05 Udal bulegoak aste osoan itxita izan zirelako barkamena eskatu zuen alkateak: Pablo Barrio alkateak barkamenak eskatu zituen Udala abenduaren 5etik

9ra itxita egon zelako "sortutako eragozpen" guztiengatik. Aurreko legealdiko erabaki bat bete behar izan zuela, herritarrei zerbitzua murriztea "gehiegikeria" zela eta ez errepikatzeak asmoa adierazi zuen Pablo Barriok.

08 Aroa Lasak koordinatu du Biladi Hadi brigadaren liburu eta diskoa: "BILADI HADI hamaika begirada Palestinari, Euskal Herriari" izeneko liburu eta diskoa Biladi Hadi elkartasun brigadak Euskal Herriko hainbat sektoretako pertsonekin batera garatutako proiektua izan da. Brigada honen parte izan zen Aroa Lasa eta liburuaren koordinazio lanetan jardun da hilabete luzeetan. Palestinan bizitako esperientziak eta Durangoko Azokan aurkeztutako liburuaz mintzatu zen Arramazka taldeko abeslaria. "Palestina igarotako hamar egunek marka sakona utzi dute niregan" esan zigun.

10 Ostadar nagusitu zen Texas Lasartearen aurkako derbian: Abenduan kadete mailako herriko bi taldeen arteko derbian, Texas taldeak ezin izan zuen lehen itzulian galdutako partidaren errebantxarik hartu eta berriro galdu egin zuen Ostadarren aurka: Texas Lasarte 1 Ostadar 3 amaitu zen azkenean norgehiagoka.

I. Kadete mailako partidu hau Michelingo berdegunean jokatu zuten herriko bi futbol taldeek abenduaren 10ean.



14 Euskal musika tresnak eza-gutzen: Txalaparta, txistua, danbolina, xirula edo alboa... horiek izan ziren besteak beste Manuel Lekuona kultur etxeko aretora hurbildu ziren heldu eta haurrek, eza-gutu eta entzun ahal izan zituzten euskal musika tresnak, euren alde teknikoak, nola eta zein materialaz dauzen eginak edo nola jotzen diren Iñaki Plaza eta Ion Garmendiaren eskutik.

Saiori amaiera emateko, euskal eta nazioarteko musika tresnen nahasketa eginez, Iñaki eta Ionek sortu duten O+Hatz proiektuko hainbat doinuez gozatu ahal izan zen.

03 Herriko gazteek "Akelarre" gazte kolektiboa sortu dute: Akelarre izena eman zioten Lasarte-Oriako iraultzarako gazte taldeari. Herrian duela hainbat urte izan ziren gazte taldeek egindako lanari eta izan zuten izpirituari jarraipena emateko eratu da taldea. Gauzak aldatzen lagundu nahi duen ororentzat "ateak irekita" dituztela esan zuten. Egun honetarako, aurkezpen ekitaldiaz gain, zenbait ekitntza antolatu zituzten.



txintxarri

Ttakinuko kide guztiok

2012 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!

Kultur Elkarteak

Ttakin



Udaletxe berriarengatik beste 600.000 euro ordainduko dira



13 Udaletxe berria erabiltzeko arazoak. Udalak 600.000 euro gehiago ordaindu behar dizkio Udaletxea eraiki duen enpresari eta Udalbatzarrean Udaletxe berriko obren kontratuaren aldaketa onartu zen derrigorrez, nahiz eta udal ordezkariak informazio guztia, azken momentuan jakin zutela adierazi. Izan ere, aldaketa hauek onartu ezean enpresak ez du Udaletxe berria emango eta ezingo da erabili. Bestalde, euskal presoaren eskubideen alde agertu zen Udalbatzarra. Bilduk Euskal Presoen eskubideen alde aurkeztutako mozioa eztabaidatzeko bazen ere, EAJ-k, eta PSE-EEk aurkako mozioak aurkeztu zituzten batzarrean. Azkenean, Eusko Legebiltzarrak 2006ko urriaren 6an adostutako euskal presoaren eskubideen defentsarako konpromisoa berretsi zuen Lasarte-Oriako Udalak eta urtarrilaren 7an Bilbon egin den manifestaziorako deia egin zuen.

14 Presoentzat laguntza jaso zuten parrokiak: Lasarte-Oriako parrokiak presoak eduki zituen gogoan Gabonetako jaien atarian. Horrela, abenduaren 14, 15 eta 16an presoek bidaltzeko gauzak jaso zituen parrokiak, elizak duen lokal zaharrean.

Bestalde elizbarrutiak "Eguberria espetxean 2011" idatzian maitasuna adierazi nahi izan zien presoek, bergizarteratzea zigorra baino egokiagoa dela azpimarratuz. Bestalde, abenduaren 24an presoak bisitatzen joan ziren Martuteneko espetxera.

15 Auzolanaren garrantzia: "Auzolanaren kultura" liburaren aurkezpena egin zen Jalgi kafe-antzokian.

Lasarte-Oriako Udalak Auzolan Elkartearekin batera antolatutako ekin-tzan Jasone Mitxeloren egilea eta Gurutz Garmendia izan ziren auzolanari buruz hitz egiten.



14 Genero indarkeriaren aurkako elkarretarata: Indarkeria kasua egon zen Lasarte-Orian eta hau gaitzesteko Udalak deituta kontzentrazioa egin zen Udaletxe aurrean. Bertan alderdi ezberdinetako ordezkariak bildu ziren, baita herriko gazteak ere.



16 Sorgin Jaien inguruko hausnarketa: Sorgin Jaien lehenari eta etorkizunari buruzko hausnarketa burutu da urtarrilean hasi eta otsailera bitartean.

Eztabaiden hitzorduak, urtarrilaren 13 eta 27an eta otsailaren 3an, kultur etxeko 3. solairuan izango dira, gazteen eta ikasleen presentzia ziurtatu nahi dute. Beste bi astetan hausnarketaren ondorioak finkatu eta kaleratuko dituzte.

Momentuz, eztabaidaren bultzatzaileek, Sorgin Jaiak buruz prestatutako txosten mardula zabaltzen ari dira gazteei, ikasleei, jaien antolaketan aritu direnei, herri mugimendu taldeetako partaideei eta parte hartu nahi duen edonori.

16 Nikaragua eta Euskal herriaren arteko lotura: Nordia L. Perez nikaraguarrek bere herriko kultura eta Euskal Herrikoa uztartzen dituen liburua "Irene" aurkeztu zuen, Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan.

16 Bildu Euskal Presoen eskubideen alde: Bilduko Udal taldeko kideek baraualdia egin zuten Donostiako kanpusean egin zen euskal presoaren eskubideen aldeko baraualdiarekin bat eginez.

Baraualdiaz gain, udaletxe aurrera atera ziren eguerdian eta ordu erdiz "Egin dezagun bidea".

Euskal presoak euskal herrira" leloa zuen pankartarekin elkarretaratzea egin zuten eta urtarrilaren 7an Bilbon euskal presoaren eskubideen alde egingo den manifestazioan parte hartzeko deia luzatu zuten.



16 Gabonetako afari luzea: Helduen Hezkuntza Iraunkorren ikasle lasarteoritar ohiak osatzen duten Lan eta Lan antzerki taldeak ikuskizun polita eskaini zuen kultur etxean.

Hiru Pulitzer sari irabazi zituen XX. mendeko idazle eta antzerkigile Thornton Wilder estatubatuararen obra antzeztu zuten eta primeran aritu ziren Ana Miranda zuzendariaren esanetara.

17 Patxi Fadrique, txapeldunorde, paletan: Patxi Fadrique herriko pilotariak lan txukuna egin zuen lehen aldiz antolatzen den Gurpil Aulkian dabilzantantzako Gomazko Paleta Gipuzkoako Txapelketan, bigarren postua eskuratu baitzuen Loiolako pilotalekuan jokatu zen finalean.

Norgehiagokak Loidi-Barrengo pilotalekuan jokatu behar bazituzten ere, azken orduan Donostiara eraman behar izan zuten Lasarte-Oriako Udal Kirol teknikariekin izan zen arazo konponekin bat tarteko.



**Lasarte-Oriatar guztiei
2012 zoriontsua opa
dizuegu**

Hator hator etxera !!





Multimusikalak eta Euskal Jaiak ez zuten hutsik egin

16 Ostiraletik igandera musika eta kaleko giroa izan ziren nagusi herrian. Jende ugari izan zen ostiral gaueko kontzertuetan: Oi Salimos en ondoren, 40 de Fiebre taldea taularatzearekin batera iritsi zen gaueko momenturik hunkigarriena, Juan Mari Cerezo taldekidea zenaren omenez, kontzertu beroa eskaini baitzuen bi urte zuzenean jo gabe zera-matzen Lasarte-Oriako taldeak. Gaueko kalitate ukitua berriez, "La Kinky Beat" talde kataluniarrak jarri zuen.

Larunbatean eguerditik hasita hainbat kontzertuz gozatzeko aukera izan zuten, bai Okendoko karpan bai herriko tabernetan, gainera Euskal Herri osotik etorritako graffiti egileak Institutura doan zubian euren artelanak egin zituzten eta igandean Neguko Euskal Jaia ospatu zen Okendo inguruan.



21 Santo Tomas azoka bustia baina jendetsua: Urtero bezala, Ttakun elkarteak hainbat postu eta ekitaldi antolatu zituen Santo Tomas eguna ospatzeko Okendo plazan.

Nahiz eta tarteka euria egin, herritar ugari hurbildu zen eta giro ederra sortu zen. Taloak, sagardo eta gaztainak dastatzeko aukera egon zen, Xumela abesbatzaren euskal kantak, Patxi Etxeberria eta Amaia Agirireren bertsoak eta erromeria.

22 Eguberrietako Haur Parkea Michelinen: EHP abenduaren 31ra arte egongo da irekia Michelingo frontoian. Haurrek doan eta helduek euro baten truke egunero hainbat joko, ikuskizun eta jolasak izan dituzte eskura, ludiko zein didaktikoak, adinaren arabera gune ezberdinetan banatuta.

22 Gabonetako ipuin musika-ia: Lasarte-Oriako Udal Musika eskolako ikasleek gabonetako ipuin musikatuak eskaini zuten. Mari, bere anaiarekin eguberriak igaro nahi zituen, gaztetxoaren istorioa ezagutu zuten Manuel Lekuona kultur etxeko aretoa bete zuten herritarrek. Istorioan zehar, eskolako musika tresna ezberdinek osatutako taldeek hainbat gabon kanta eskaini zituzten.

23 Hiribusik ez da izango urte hasieran: Lasarte-Oriako Udalak abenduaren 30ean hiribus zerbitzua etetea, autobus zerbitzu municipal sortzea eta zerbitzuaz arduratuko den enpresa aukeratzeko deialdi publikoa lehen bait lehen egitea erabaki zuen, zerbitzu hori orain arteko irregulastasunetik atera eta behin betiko finkatzeko. Bandoa kaleratu zuen Pablo Barrio alkateak erabakiaren berri eman eta herritarrei erabakiak sortuko dituen eragozpenengatik barkamena eskatzeko.




24 Olentzeroren bisita Pantxika astoaren laguntzarekin: Arratsaldeko 17:00etan abiatu zen batukada, suziri, hankaluze, trikitilari eta besteen kalejira Loidi-Barrengo pilotalekuaren paretik Okendorantz eta han Olentzerok Porrotx, Mari Domingi eta Xixukoren laguntzaz, herriko ume guztiak agurtu, "Xalala" abesti ezaguna dantzatu, ohera goiz joateko dei egin eta muxuak banatu zituen.



26 Euskal preso politikoak gogoan: Presoen Lagunak Taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu gabonetan, Okendon ireki duen elkargunean. Horrela, presoen eskularen erakusketarekin batera astelehenean Kontu Kantoi ipuin kontalariak izan ziren, asteartean Zigor Lanpre DZ, asteazkenean Porrotx eta ostegunean bertsolariak.

Egitarrak osteguneko egunotan segituko du, ostiralean, 30ean Kultur etxean 19:00etan egingo da "Harresi guztien gainetik, sarraila guztien azpitik" ikuskizuna, presoek idatzitako olerkien irakurketa, 31n manifestazioa 19:00etan Okendotik, 2tik 5era, liburu-bideo aurkezpen, poesia emanaldi,... 19:00etan elkargunean eta Joseba Tapiaren kontzertua ere azpimarratu daiteke egitarauan, musikariak "Eta Tira eta tunba" diskako doinuak joko ditu eta Manuel Lekuona kultur-etxean, urtarrilaren 6an arratsaldeko 19:30ean.



24 Herriko presoen aldeko brindisa: Hainbat lagunek deituta zegoen presoen aldeko brindisarekin bat egin zuten. Bertan izan ziren Ane Labaka eta Unai Muñoa bertsolariak, herriko presoek kantatuz. Bestalde, Pablo Barrio Lasarte-Oriako alkatea ere gerturatu zen Okendo plazara.

Brindisean jakinarazi zuten, Ibon Fernandez de Iradi preso ospitalean ingresatu egin zuten ostiralean, urtebete eskakizun hori egiten aritu ostean. Proben zain badaude ere, badirudi biz-

karrezurreko gaixotasun larriren bat izan dezakeela.

27 Gazte Klubeko gaztetxoak Euskal Astea egin dute: Lehen hezkuntzako gaztetxoak Iñigo de Loloia kaleko Gazte Lokalean ekintza ezberdinak egin dituzte urteko azken astean. Besteak beste, txalaparta ikastaroa burutu zuten. Gustura aritu ziren gazteak Euskal Herriko instrumentu zaharrenetakoari doinuak ateratzen Amaia Amiano Zuaznabar irakaslearen esanak zintzo jarraiki.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udalak
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarri ez du bere gain hartzen irizti-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.




SANCHO TABERNA

OGITARTEKOAK
PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK
EGUNEKO MENUA

2012 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU !

HITZARTUTAKO
ETA
TALDEENTZAKO
MENUAK

KAXUELA,
PINTXO ETA
MORUNOETAN
ESPEZIALIZATUA



Oriamendi enparantza 1 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 372075



2012 zoriontsua opa dizuegu !

Urtezahar gauean
irekita gau osoa

ABEND
KAFE-ANTZOKIA

EGUNEKO MENUA
DANTZA
BOKATAK
KONTZERTUAK

Pablo Mutiozabal 5 • Tel.: 943 372089 • LASARTE-ORIA

2012 zoriontsua
opa dizuegu!



IZARRA
BITXITEGIA



www.izarrabitxitegia.com

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

